

txintxarri

2021-12-29 ASTEAZKENA / 1569. ZENBAKIA
LASARTE-ORIA TXINTXARRI.EUS TOKIKOM

2021

Datorren urtean pieza gehiago

2022. URTEAN ERE ALBISTEA NON, TXINTXARRI HAN

eguzkitako
2MÓ
58€

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



Gabonetan
oparitu mó

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIÓPTICAS

50 urte zuen ikusmena zaintzen

www.multipopticas.com





LUIS CAR

autobusak

2022 zoriontsua opa dizuegu!

- Espainiako eta nazioarteko garraio zerbitzuak
- Enpresentzako, ikastetxeentzako... zerbitzuak
- 15 plazako mikrobusak
- 55 plazako autobusak
- Elbarrientzat behar bezala prestatutako autobusak

Uzturre plaza, 1 LASARTE-ORIA • Tel./Faxa: 943-36 63 16 • Mugikorra: 629 46 18 97 • luiscarbus62@hotmail.com



Ges aseguruak

2022 urte berri on! Zaindu zaitetze!

**Kalitatezko zerbitzua da
gure lanaren arrazoia**

- ✓ Etxeko aseguruak
- ✓ Komunitateak
- ✓ Kotxeak
- ✓ Dendak

- ✓ Aurrezkiak
- ✓ Istripuak
- ✓ Enpresak
- ✓ Bizitza aseguruak



Pablo Mutiozabal kalea, 2 - 1. solairua, 8. bulegoa
Tel. 943-36 58 99 - cristina_arteaga@ges.es - Lasarte-Oria

2021. urtea

Urtarrila	4-5
Otsaila	6-7
Martxoa	8-9
Apirila	10-11
Maiatza	12-13
Ekaina	14-15
Egutegia	16-17
Uztaila	18-19
Abuztua	20-21
Iraila	22-23
Urria	24-25
Azaroa	26-27
Abendua	28-30



TXINTXARRI/EDORTA ALDAZABAL/DONOSTIA ARRAUN LAGUNAK/FREEPIK

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administrataria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Elizagire, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldúa eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maitane Rebe, Julen Basterra,
Nerea Segura, Lierni Rekondo
eta Aizpea Amas.

Banatzaileak
Unai Bardaji, Lide Hidalgo, Uxue
Odriozola, Julene Iraola, Egoitz
Epelde, Sergio Hernandez,
Ander Hazas eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

PUBLIZITATEA
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 688 68 35 10
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.500 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia



TXINTXARRI

Errege Magoak urtea hasteko

Egunerokoa hain ezohikoa zen garaietan, Errege Magoen etorrera ere halakoa izan zen. Brigitarren komentuan ez, herriko ikastetxetara joan ziren Melchor, Gaspar eta Baltasar aurtengo urtarrilean, eta ez hirurak batera: Melchor, Sasoetan; Gaspar, Garaikoetxea-Landaberrin; eta, Baltasar, Zumaburun.



TXINTXARRI

aSunak taldearen sorrera eta aurkezpena

Herriko neska* talde batek aSunak izeneko eragilea sortu zuen. Manuel Lekuona Kultur Etxean aurkeztu zuten egitasmoa, eta parte hartzeraz gonbidatu Lasarte-Oriako neska* eta emakumeak*. Urte osoan zehar ekimenak, formakuntza saioak eta bestelakoak egingo zituztela iragarri zuten, eta horrela egin dute 2021ean zehar. Lanketa sakona abiatu zuten, hilabete askotan zehar sutan egositakoa. Aurkezpen ekitaldian prosa bakarrik ez, antzerkia, musika eta poesia ere erabili zituzten. Ekitaldiko gonbidatu bereziena, Amona Asun izan zen.



TXINTXARRI

Ttakunen jarduna babesteko

Ttakun Kultur Elkartek euskara eta euskal kulturaren alde egiten duen lanak udalaren babesa jaso zuen beste urte batez. Elkarteko lehendakari Mari Karmen Ormazabal eta herriko alkate Agustin Valdiviaki sinatu zuten hitzarmena, Jon Anbixordoki Euskara batzordeburua aurrean zela. Horren bitartez, 180.686,08 euroko laguntza jasoko zuen Ttakunek bere egitasmoetarako.



BURUNTZALDEA IKT

Nazioarteko Eguberri Txapelketan sarituak

Nazioarteko igerilariak Donostiako Paco Yoldi igerilekuan bildu ziren, nor baino nor gehiago, Nazioarteko 38. Eguberri txapelketako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzari Sari Nagusia eskuratzeko. Bertan izan ziren Buruntzaldea IKTko igerilariak, baita Irungo Bidasoa XXI taldean lehiatzen diren Ainhoa eta Leire Martin herritarrek ere. bi ahizpek Euskal Herriko selekzioarekin parte hartu zuten, eta, nahiz eta faboritoen artean ez egon, sari nagusiko lehen postua eskuratzeko lehia bizia izan zuten. Buruntzaldea IKTko kideak ere ez ziren esku hutsik joan Donostiatik.

Ostalarien protesta ozenek kaleak hartu zituzten

Koronabirusak eragindako osasun larrialdi egoerarekin bizitzen ari ziren egoera prekarioa salatu zuten

Txintxarri

Gipuzkoako ostalariak bizitzen ari ziren "egoera prekarioa" salatzen hainbat protesta jarduerak egin zituzten. Tolosatik Andoainera, auto karabana egin zuten urtarrilaren 16an,

larunbatez, N-1 errepidean barrena, eta kontzentrazioa gero, Beterri-Buruntza eskualdeko herri horretan. Lasarte-Oriako zenbait tabernarik parte hartu zuten ekimenean.

COVID-19aren hirugarren olatuak busti zuen Lasarte-Oria ere. Gipuzkoako herri askotan gertatu bezala, gurean ere nabarmen igo ziren kutsatzeak, eta, horren eraginez, etenik gabe aipatzen zen koronabirusaren intzidentzia tasa metatuak ere gora egin zuen, 500 kasuen batez besteko muga gainditu eta herria alerta gorrian jartzeraino. Horren ondorioz, Eusko Jaurlaritzak neurri murriztaile zorrotzak iragarri zituen; horien artean, ostalaritzaren itxiera.



Lasarte-Oriako ostalari eta herritarrek mobilizazioan parte hartzen. TXINTXARRI



Danbor hotsak Sasoetan. TXINTXARRI

Danborrak astindu zituzten ikastetxeetan

COVID-19aren pandemiak ez zituen danbor-hotsak isildu. Ez behintzat Lasarte-Oriako ikastetxeetan. Sasoeta-Zumaburu eta Landaberri ikastetxeetan gogor eta gustura astindu zituzten danbor eta makilak San Sebastian bezperan. Osasun egoerak behartuta, hori bai, zenbait moldaketa egin behar izan zituzten.



Dominikar Errepublikan gau bat

El Conquistador del Caribe saioaren VII. edizioko lehiakidea izan zen Mikel Arruti herritarra. Denbora luzez itxaron zuen bertara joateko, baina uste baino lehenago amaitu zen bere lehia. Lehenengo taldeko norgehiagoka galdu eta taldekide bat kaleratzeko agindua jaso zuen bere taldeak. Izendapenetan bozka gehien jaso eta etxera bidea hartu behar izan zuen, gau bakarria igarota.

Zadilbarko zabortegian gertatutakoa aztertu eta idatzi

'Zaldibar zona cero' liburua aurkeztu zuen Ahoztar Zelaieta idazleak, Antonio Mecero aretoan

Txintxarri

Ahoztar Zelaieta kazetari bizkaitarrak *Zaldibar zona cero* (Zaldibar zero eremu) liburua aurkeztu zuen Mecero gunean, Lasarte-Orian Aire Garbia plataformak gonbidatuta. Herri bizkaitar horretako zabortegian gertatutako hondamendia ikertu, eta aurkitutakoak jaso ditu lanean. 27 urte daramatza ikerketa kazetaritza egiten. Zaldibarren jazotakoari buruzko liburua 2020ko irailean argitaratu zuen Zelaietak, Txalaparta argitaletxearekin.



Zelaieta, aurkezpenean. TXINTXARRI



TXINTXARRI

Eskola Kirolaren berrekitea

Eskola mailako kirol jarduerak egitea ahalbidetu zuen Eusko Jaurlaritzak. Kirol elkarte ezberdinetako asko hasi ziren lanean. Eskola Kirola egitasmoak, berriz, urtarilaren 18an berrekin zituen saio presentzialak. Pozik agertu ziren arduradunak, baina gutxi iraun zuen alaitasun horrek. Astebete geroago berriz ere eten egin baitzen aipatu egitasmoa, koronabirusaren ondorioz.



Furundarenak emaitza onak

Ostadar Atletismoko kirolariek Gipuzkoako Txapelketako lehen saioan parte hartu zuten, Donostiako Antonio Elorza belodromoan. Guztien artean, Naroa Furundarenak lortu zuen emaitzarik onena. Jauzi hirukoitzeko txapela jantzi zuen herritarrak, birritan 12,36 metroko marka azpimarragarria eginez.



Bizipozako zenbait kide. TXINTXARRI

Bizipozaren kantu eta bideoklip sorta

Bizipozako kide diren 11 eragileren errealitatea ezagutzera emate aldera, *Mundu berri bat guztiontzat* kantu eta bideoklip sorta kaleratu zuen elkarte horrek. Proiektua 34 euskal sortzailerekin batera ondu du; dozena bat abestik eta 11 bideoklipek osatzen dute.

Urte berri on!



Gabonetako eskaintzak ditugu! ZATOZI!

HAURENTZAKO LANPARRA DIBERTIGARRIAK

ELECTRICIDAD
ARREGUI



600 85 75 86
www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com
(on-line denda)



Modelo ezberdinak



ZUTIKAKO
LANPARRA
arraitxoekin



Kale Nagusia, 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21



TXINTXARRI

Itsaspeko bizia erakusten

CIMASUB itsaspeko zinema zikloa hamahirugarren urtez ekarri zuten herrira Real Sociedad taldeko urpekaritza sailak, Danok Kide elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak. Lehen emanaldi sorta otsailaren 8an egin zuten. Ikus-entzunezkoekin batera, argazki erakusketa bat ere antolatu zuten, eta itsas azpiko irudi erreal bezain ederrak ikusteko aukera izan zuten bertaratu zirenek.



Iñaki Petxarroman kazetaria. TXINTXARRI

Klima larrialdiaz kontzientzia hartzeko

Klima eta ekologia larrialdiari buruzko kazetaritza liburua idatzi du Iñaki Petxarromanek. Sei atal ezberdinetan banatu du lana, eta horietan aztertu du bizi dugun krisia ukatzeko izan diren jarrerak, gizakiaren eragina bizi dugun garai geologikoan, egungo egoera zein den, Euskal Herrian zer egiten ari den, etorkizunera begirako erronkak zeintzuk diren, eta COVID-19aren eta klima eta ekologia krisiaren arteko harremana zein den.



TXINTXARRI

Euskal Inauteri sinbolikoak

Osasun egoerara moldatutako egitaraua prestatu zuen Ttakun Kultur Elkarteak, asteburu honetan Euskal Inauteriak sinbolikoki ospatzeko: maskara eta txantxo tailerrak, eta bideo emanaldia, ekitaldiaren atzean egon daitezkeen mitoak azaltzeko. Gustura eta giro onean prestatu zituzten lasarteoriatarrek 2022rako maskarak, eta txantxo jantzi dotoreak ere josi eta apaindu zituzten.



Nahia Zudaire podiumean. BURUNTZALDEA IKT

Zudairek, marka eta errekor berriak

AXA Adin Arteko Espainiako Txapelketan parte hartu zuen Nahia Zudairek. Lau saiotan parte hartu zuen eta garaile izan zen. Bere markak onteaz gain, Espainiako errekor berriak ezarri zituen. Buruntzaldea IKTko beste igerilariak Kontrol Txapelketako 2. jardunaldian lehiatu ziren; hamazazpi marka hobetu zituzten.



Skate parke berriari begira

Skate parke berria egiteko asmoa agertu zuen Lasarte-Oriako Udalak, eta, hori lantzeko, parte hartze prozesua abiatu zuen. Duela hogei bat urte eraiki zuten Oriarte Institutuaren aurrealdean skatean ibiltzeko parkea eta, dagoeneko "zaharkitua" dagoela iritzita azaldu zuen udalak berria eraikitzeko asmoa.



OSTADAR ATLETISMOA

Marka onak, kontrol probetan

Ostadar Atletismoko kideek hainbat marka ondu zituzten kontrol probetan. Herriko atletek pisu jaurtiketa proban eta luzera jauzian lortu zituzten markarik esanguratsuenak. Maider Rekondok, esate baterako, Gipuzkoan orain arte erregistratu den laugarren markarik onena egin zuen pisu jaurtiketa modalitatean.

Sahararrei babesa emateko helburuz batu ziren herritarrak

Tomax Arruti, Salec Mohamed eta Mustafa Sid Bashir-ekin elkartu zen TXINTXARRI aldizkaria

Txintxarri

Ahaztutako gatazkaren gaineko arreta mantendu eta sahararrei babesa emateko xedez abiarazi zuten zenbat herritarrek Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria taldea. Otsailaren 28an 45

urte bete ziren sahararrek independentzia aldarrikatu zutenetik, beste behin gerran murgilduta.

Aurten hiru hamarkada osatuko zituen Fronte Polisarioak eta Marokok sinatutako su etenak.

Halakorik ez zen gertatu, azaroaren 13an bertan behera utzi baitzuten gerra hotsak berriz ere bueltatuz. Horren berri eman eta ahal duten neurrian laguntzeko asmoz Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria taldea sortu zuten zenbait herritarrek. Horretarako zergatiaz eta sahararrek bizi duten egoeraz mintzatu zen TXINTXARRI Tomax Arruti kidearekin, Lasarte-Orian bizi diren Salec Mohamed-ekin eta guda frontean izan den Mustafa Sid Bashir kazetariarekin.



Salec Mohamed, Unax Arruti, Tomax Arruti eta Mustafa Sid Bashir. TXINTXARRI

'Hori ez galdu sekula' aurkeztu zuten Alkainek eta Arroyok

Sentipen negatiboek positibotik ere badutela erakutsi dute sortzaileek, elkarrekin ondu duten ipuinean

Txintxarri

Bizitzako galerei buruz hitz egiten laguntzeko *Hori ez galdu sekula* liburua osatu dute Intza Alkainek eta Janire Arroyok, Izan Inurriren enkarguz. Otsail hasieran aurkeztu zuten Ttakunenean eta minbiziaz nahiz heriotzaz ere hitz egiteko baliatu zuten aukera. Amona eta iloba baten arteko istorioak josten du galera moten katalogo modukoa. Liburuaren aurkezpena amaituta, minbiziari buruzko testigantzak eta haurrekin heriotza lantzeko aholkuak eman zituzten.



Sortzaileak, aurkezpenean. TXINTXARRI



Pailazoak, emanaldi batean. KATXIPORRETA

Nafarroako auzitegia, sudurgorrien alde

Iruñeko Udalak bertan behera utzi zuen Pirritx, Porrotx eta Marimototsek 2019ko azaroan Baluartean egin behar zuten emanaldia, kontratuan irregulartasunak zeudela argudiatuz. Nafarroako Administrazio Auzitegiak, ordea, pailazoen alde ebatzi zuen. Hiru arrazoi eman zituen beraien alde.



TXINTXARRI

Maskara arteko inauteria

Koronabirusak inauteriak beste era batera ospatzera behartu ditu lasarteoriarrak aurten. Ikastetxeetako ikasleek egoerara moldatutako jaialdi koloretsuak egin zituzten, eta izan zen kalera moztuak jantzita atera zenik ere. TXINTXARRI-ko kazetariaren kamarak harrapatu zituen, besteak beste, superheroiez moztututako herritar gaztetxoak.



Axier Arteaga pilotari jotzen. A.ARTEAGA

Ezker eskuan min hartuta, ezin jokatu

Axier Arteaga Arteaga II.ak ezker eskuko mina dela eta, berriro ere bere jarduna eten behar izan zuen. Otsailaren 7an, esate baterako, ezin izan zuen bikotekako promozio txapelketako partida jokatu. Arteaga II.aren etenaldi berriak astebete iraun zuen.



NAHIA ZUDAIRE

Joko Paralinpikoetarako sarbidea

Bartzelonan lehiatu zen otsailaren 20an eta 21ean Buruntzaldea IKTko Nahia Zudaire. Bartzelonako Igeriketa Egokituko Nazioarteko Sarian Euskadiko selekzioarekin parte hartu zuen hiru probetan: 200 metro eta 400 metro libre eta 100 metro tximeleta. Sari bikoitza eskuratu zuen: S8 mailako Espainiako errekorra eta Tokioko Joko Paralinpikoetarako gutxieneko B marka.



TXINTXARRI

Bertso bat nola egin irakasten

Lasarte-Oriako Earra! bertso-eskolan hiru ikasle talde aritu ziren lanean 2020-2021 ikasturtean. 'Beteranoekin' elkartu zen TXINTXARRI, DBH 3. mailakoekin, eta Lierni Rekondo irakaslearekin ere bai, astez aste egiten zutena gertutik ezagutu, eta bertsolaritzari buruz hitz egiteko. Bertso bat nola egin azaldu zioten aldizkariari.

INPRENTA
offset eta digitala

DISEINU GRAFIKOA

DISEINU EDITORIALA

Goza ezazue jai hauetan
Urte berri on!

antza

KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

Zirkuitu ibilbidea, 2 20160 LASARTE-ORIA

Tel. 943 37-07 38 info@antza.eus

www.antza.eus

Martxoak 8a ozen aldarrikatu zuten

Martxoaren 8a aldarrikatzeko aurten ere ekintza ugari antolatu zituzten herriko zenbait eragilek. Lasarte-Oriako Udalak kartel lehiaketa eta adin ezberdinentzako ekimenak burutu zituen eta aSUnak neska* gazteen taldeak deituta mobilizazio jendetsua egin zuten

Txintxarri

Aldarrikapen ugari egin zituzten martxoaren 8aren bueltan. Emakumeen Nazioarteko Eguna baliatu zuten herritarrek kalera irten eta prestatutako jardueretan parte hartzeko. Asko izan ziren egitaraua osatu zuten ekimenak. Martxoaren 5ean, *Futbolistak eta printzesak* antzezlan ikusteko aukera izan zuten ikastetxeetako ikasleek, eta, hilaren 6an, berriz, *Trabajos de interior* ikustera gerturatu ziren helduak. Martxoaren 7an, aSUnak neska* gazteen taldeko kideek tailerra egin zuten. Ekintza nagusiak, ordea, martxoaren 8an izan ziren. Eguerdian, udalak deitutako elkarretaratzean bildu ziren Okendo plazan, eta arratsaldean, Kukuka antzerki eta dantza eskolak antzezlan labur bat eskaini zuen herriko plazan. Hori amaituta, aSUnak taldeak deitutako manifestazioak hartu zituen herriko kaleak.



Lasarte-Oriako Udalak deitutako mobilizazioan parte hartu zuten herritarrek. TXINTXARRI



Kukuka antzerki eta dantza eskolako antzezleek emanaldia egin zuten. TXINTXARRI

Urtebete koronabirusak egunerokoa hankaz gora jarri zuenetik

2020 martxotik 2021ekora, larrialdi egoera eta etxeko konfinamendua ezarri eta ia urtebetera, COVID-19ak Lasarte-Oria izan zuen bilakaera aztertu zuen TXINTXARRI-k. Datu ofizialen arabera, 2020ko martxoaren 18tik aurtengo martxoaren 10era arte 1.266 lasarteoriatar kutsatu ziren COVID-19ak, herrian bizi diren biztanle guztien %6,65. Bestela esanda, ehunetik sei herritar pasatxo. Ehunetik hogei pasatxo, gaixoen %21,8, azaroan kutsatu ziren, bigarren olatuaren oldarraldi betean. 2020ko martxora arteko zifrak erreferentziatzat hartuta, herrian,



Erreportajearen orrialde bat. TXINTXARRI

azaroa izan zen COVID-19ak intzidentzia gehien izan zuen hilabetea.

Datu ofizial horien arabera, hamazazpi herritar zendu ziren koronabirusagatik izazko martxotik.

Añorga KKEren garaipen garrantzitsua, Bilbon

Añorga KKEk pausu handia eman zuen San Ignacio garaituta, arerio zuzenetako bat. Irabazitako hiru puntuek hurrengo faserako sailkapena eman zioten. Izaskun San Aniceto herritarrek paper garrantzitsua izan zuen partidari; Añorgaren lau goletatik bi egin zituen lasarteoriatarrek.



TXINTXARRI

Bizikidetzari buruz hausnartuz

Elkarbizitzari buruz hausnartu zuten lasarteoriatarrek. Martxoaren 3an, kultur etxean izan zen *Zubiak* dokumentaleko protagonistetako bat, Maixabel Lasa, eta solasaldia eskaini zuen. Bizikidetzaren jardunaldien lehen saioa izan zen, eta Baketik fundazioak eta Lasarte-Oriako Udalak antolatu zuten. Martxoaren 4an, berriz, polizia indarkeriaren biktimei buruzko mahai ingurua egin zuten.



TXINTXARRI

Lesboseko egoera, argazkietan

Bizipoza Lasarte-Oriatik Lesbosera ekimenak abenduaren 10ean Manuen Lekuonan egindako ekimenaren iragarri zuten argazki erakusketa bat egingo zutela. Esan eta egin. Lesboseko kanpamentuan errefuxiatuek bizi duten errealitatea ekarri zuen Miren Bardaji herritarrek Antonio Mercero aretora. Argazkien bidez, lehen pertsonan jaso ahal izan zuten Lesboseko egoeraren berri herritarrek.



TXINTXARRI

Trukelandiaren berri eman zuten

Porrotzek eta Maitane Rebek Trukelandia ekimenaren nondik norakoak azaldu zituzten Ttakun Kultur Elkartearen eta Lasarte-Oriako Udalen Gurasoleku proiektuaren barruko Gurasolandia egitasmoan parte hartzen duten familiei.

Barrearen boterea eta kontrabotereari buruzko lana

Ane Labaka Mayozen 'Algara mutilatuak. Umorearen ahobikotasunaz, feminismoa' entsegu aurkeztu zuen

Txintxarri

Lagun artean aurkeztu zuen Ane Labaka Mayozen *Algara mutilatuak. Umorearen ahobikotasunaz, feminismoa* saiakeran. Susa argitaletxearen Lisipe bilduma feministaren ale berria osatu du eta izenburua ekitaldian egon zen Bea Egizabalek *Erradikalak gara* ikuskizunean egingako hitz joko bat da. Umoreari lotuta bi lerro landu ditu: batetik, genero sistemak haren garapenean duen eragina, eta bestetik, umorearen erabilera sistema horren erresistentziarako edo transgresiorako bide bezala.



Ane Labaka, lana eskuetan. TXINTXARRI



Barrio liburua aurkezten. TXINTXARRI

Pablo Barriok liburu aurkezpena, herrian

El Sitio del Fin del Mundo izena du Pablo Barrio lasarteoriatarak argitaratu duen azken lanak: emakume pirata baten istorioa kontatu du idazleak liburu horretan. Antonio Mercero aretoan aurkeztu zuen fabula literarioa, Tasio Arrizabalaga eta Intza Alkain herritarren laguntzarekin.



BURUNTZAZPI

Errepideko denboraldi hasiera

Buruntzazpi txirrindularitza eskolako junior eta kadeteek otsailaren 28an izan zuten lehen lasterketa. Hitzordu bikoitza izan zuten eskolako txirrindulariek. Juniorrak Udaberri Sarian izan ziren, Eibarren; kadeteak, berriz, Donostian, I. Kia Capdequi Astigarraga sarian. Junior mailan, denboraldi berriko lehen garaipena lortu zuen Haimar Etxeberriak.



TXINTXARRI

2021eko aurrekontuak, onartuta

Ezohiko udalbatzarra egin zuten martxoaren 17an. Gai garrantzitsua zegoen mahai gainean, 2021. urteko aurrekontuak. PSE-EE eta EAJ-PNV alderdien bozkek ahalbidetu zuten aurrekontuen onarpena. PSE-EE "pozik" agertu zen elkarlanean adostutako dokumentua zelako. EH Bildu eta ELOP ez ziren bat etorri aurrekontuetako inbertsioak egiteko aurkeztu zen plan estrategikoarekin.



Arraun Lagunak, jaitsieran. TXINTXARRI

Herriko arraunlariak, denboraldia hasten

Traineruen denboraldiaurrea hasita, Hondarribian, Legutianon eta Orion jokatu zituzten lehen hiru hitzorduak eta, azken horretan, Arraun Lagunak izan zen garaile. Denboraldi horretan, Arraun Lagunak, Hondarribia eta Hibaika taldeetan lehiatu aritu ziren zenbait herritar.



TXINTXARRI

Udal garbitzaileak protestan

ELA eta ESK sindikatuek babestuta, Lasarte-Oriako udal eraikinetako garbitzaileek protestak egin zituzten. Salatu zuten garbiketa zerbitzua kudeatzen zuten enpresak ematen zuten zerbitzua ez zetozeela bat plegetan jasotakoarekin.

SEMBLANTE ANDALUZ

Gure Rocío-ko Ama Birjinaren kofradiak 2022 zoriontsua opa dizue

Golf plaza, 2 Lasarte-Oria - Tel. 943-36 36 99

MAITE

ESTETIKA ARETOA

2022 zoriontsua opa dizuegu!

Orduetegi malguta daukagu
Uistin Kalea, z/g • Lasarte-Oria
Tel. 943-37 08 45

Gabon hauetan ongizatea oparitu gertukoei!

Opari-txartelak ditugu zerbitzuetan erabiltzeko

- Manikura eta pedikura
- Makillajea
- Aurpegi eta gorputz tratamenduak
- Solariuma
- Mota ezberdinetako depilazioak
- Betileen tindatzea eta lifting-a...




Partehartze txikia herri galdeketan

Zer egin behar du Udalak egungo lurpeko edukiontziekin? Galdera horri Bai edo Ez erantzutera deituta zeuden 15.965 herritar, baina gehienak ez ziren bertaratu hautetsontzietara apirilaren 25ean, igandearekin. Lasarte-Oriako Udalaren datuen arabera, 1.258 herritarrek eman zuten iritzia kontsulta horretan; boto emaileen %7,78 izan ziren. Bozkatu zuten pertsonetatik 702 lurrazpiko zaborrontziak kentzearen alde agertu ziren (hautesleen %55,8), eta 552 mantentzearen alde (%43,9). Botoetako hiru baliogabeak izan ziren, eta zuria bat.



Lausotzen ari den magia

Pello Artetxe (Lasarte-Oria, 1963) eta Jexux Izeta (Lasarte-Oria, 1953) herritarrek dozenaka pertsonaia ahotza eta euskarazko bikoizketaren erreferenteetako bi dira. Euskarazko bikoizketan ia hastapenetik aritu dira, jarduna eginez ikasten eta, hein batean, sortzen. TXINTXARRI-k elkartuta, ogibideaz eta sektorearen gainbeheraren eskutik helduta egindako ibilbideaz solasean aritu ziren.



Bideogintza eta dantzaren eguna

Antzerkiaren Nazioarteko Egunaren inguruko ekimenen artean, aurtur estreinakoz bideo txapelketa antolatuta zuten Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolak. Nahia eta Miren Alkorta ahizpek egindako *Tablet batengatik* lanak irabazi zuen lehiaketa. Ospakizunekin jarraituz, Nazioarteko Eguna izan zen apirilaren 29an. Emanaldiak egin zituzten Amaia Gonzalez Caballero Akademiak, Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolak eta Semblante Andaluzek.



Landaberriko aldapako lanak amaitu dira

Sarbidea itxi zenetik –2019ko irailean– urte eta erdi baino gehiagora, ikasleak Landaberrira garraiatzen dituzten autobusak ikastetxe atariraino igotzen hasi ziren berriro apiril amaieran, ikastolako aldapa sendotzeko obrak amaituta baitzeuden. 2021eko urtarril amaieran ekin zien konponketa lanei Construcciones Moyua enpresak; aurrekontua 294.727 eurokoa izan zen. Hiru hilabetez jardutea aurreikusitako zuten, eta bete zuten ezarritako epea. Maldan ez ezik, beste esku-hartze batzuk egin zituen Lasarte-Oriako Udalak. Esate baterako, ikastolara sartzeko bideak bermatzeko lanak egin dira: horretarako, 33.852 euroko kreditu aldaketa bat onartu zuen udal korporazioak.

Dominak eta danak

LOKE judoko kideek hainbat hitzordu izan zituzten. Asier Sagastik brontzezko domina eskuratu zuen Bartzelonan jokaturako Superkopian eta Mario Herrero, Ekhi de la Cruz eta Oier Guisado kadeteek brontzezko domina jantzi zuten Gipuzkoako txapelketan. Bestalde, Unai Guisadok eta Lucas Moralesek gerriko beltza eskuratu zuten azterketan eta Haritz Urdangarinek eta Eneko Eizagirrek, berriz, bigarren dana.



LOKE JUDO

Kredituen aldaketen onarpena, partida berriak sortzeko

Ezohiko udalbatzarra egin zuen udal korporazioak apirilaren 15ean. Aho batez ezohiko udalbatzarraren urgentziazko deialdia onartu eta 2021. urteko aurrekontuak handitzeko 3.577.632 euro jasotzen dituen espedientea onetsi zuen, partida berrietarako. Behin 2020. urteko ekitaldiko likidazioaren berri jakinda, jardunaldi horretako

gerakinak bideratu zituzten partida berrietara, kreditu aldaketen bitartez. "Presazko eta beharrezko partidak" izan zirela azaldu zuen Agustin Valdivia alkateak.

Horren harira, besteak beste, COVID-19ari aurre egiteko, Lasarte-Oriako Udalak udalerriko merkataritzaren, ostalaritzaren eta zerbitzu pertsonalen sektoreetan ekonomia suspertzeko eman beharreko aparteko laguntzen oinarriak eta deialdi berria onartu zituen.

Txirrindulariak, podiumetan

Buruntzapi txirrindularitza eskolako juniorrak berriro ere, lehenen artean izan ziren Lizarran eta Erreterian. Hainbat lasterketa jokatu zituzten apirilean zehar. Martxoaren 28an, Erreteria Hiria sarian Beñat Carbayedak hirugarren postuan igaro zuen helmuga eta apirilaren 11n, Haimar Etxeberriak III. Robert Innova trofeoan lortu zuen postu bera.



MARTIN EARLY

Mugikortasun eredu aldatzeko plana eta parte-hartze prozesua

Hiri Mugikortasunerako Jasangarritasun Plana (HMJP) egiteko prozesua aurkeztu zuen Lasarte-Oriako Udalak. Planaren "xede nagusiak" hauek dira: "irisgarritasuna hobetzea" eta "ibilgailu pribatuen eragin negatiboak gutxitzea". Udalaren asmoak dira garraio eredu eraginkorrago bat eratzea; gizarte integrazioa handitu eta

irisgarritasun unibertsalagoa ematea; herritarren bizi kalitatea hobetzea eta haien osasun baldintzak arriskuan ez jartzea; joan-etorriak seguruagoak izatea; eta mugikortasun eredu iraunkorragoak izatea. "Genero ikuspegia txertatzea ere funtsezkoa izango da". Planaren lehen fasean, hiri mugikortasunari buruzko azterketa egiten ari zen Lasarte-Oriako Udala. Horretarako, herritarren iritzia jaso nahian, parte hartze prozesua ireki zuen.

Koronabirusa eta protestak

2020ko azarotik, intzidentzia gehieneko bigarren hilabetea izan zen apirilekoa, 222 kutsatze. Hilarren 9an sartu zen eremu gorrian eta neurri murriztagarriak jarraitu behar izan ziren 13tik aurrera: besteak beste, udalerrri mailako itxiera –herri mugakideetara joan zitekeen erosketak egitera eta aire zabalean kirola egitera– eta ostalaritza establezimenduek lokal barruan zerbitzua eskaintzeko ordutegiak murriztu beharra, 06:30etik 09:30era eta 13:00etatik 16:30era.

Egoerak sortutako hainbat protesta ere izan ziren hilabete honetan. Apirilaren 21ean, Institutuko gelak utzi eta Okendo plazara irten ziren Oriarte institutuko ikasleak. Ikasturte hasieratik jasaten ari diren "utzikeria, nahasmena eta kontraesanak" salatzeko mobilizazioa egin zuten, Horrelaxe adierazi zuten *Ondorioak ordaindu behar izateaz nazkatuta gaude* zioen pankartaren atzean bildu ziren ikasleek.

Herriko hainbat ostalari elkartu ziren apirilaren 24an, bezperan Donostian egindako protesta ekintzan poliziak ostalari batzuk jipoiu eta atxilotu zituela gaitzesteko. *Langileak gara, ez gaizkileak* aldarrikatu zuten. Donostiako Foru Aldundira protesta egitera joandako ostalarietako bat herritarra zen, Aurreku tabernaren jabea Elena Ginea.

Horrez gain, beste behin berretsi zuten ostalaritza ez dela "birusa", ezta "gizartearen aurrean hori guztia justifikatzeko aitzakia" ere; eta horren aurrean eskaera egin zuten: dirulaguntzak, erruduntzat ez erabiltzea eta baldintza duinetan lan egiten uztea.



TXINTXARRI

Kirolariekin solasean

Paola Vega Santos (Lasarte-Oria, 2002) errugbi jokalaria, Aitor Anabitarte Soroa (Lasarte-Oria, 2002) Chicagon ikasten ari den saskibalo jokalaria eta Iñigo Altuna Maeztu (Lasarte-Oria, 1998) Caja Rural taldeko Filialeko talde teknikoko kidea elkarrizketako genituen. Euren jardunaren eta 2020-21 denboraldiaren gainean solastu ginen.



TXINTXARRI

Lasarte-Oriako 52 familia, kaleratze arriskuan

Lasarte-Oriako Zapategi kaleko 1, 3 eta 5 portaletan bizi diren 52 familia abuztuaren etxegabetuak izateko arriskuan zeudela salatu zuten Stop Desahucios, Alokairu eta Inquilinos Azora plataformek.

Etxebizitzaren jabeak, PBP Gestión de Arrendamientos y Alquileres SLk, familiei jakinarazi zien edo kontratu berri bat sinatzen zutela, edo

abuztuaren 31n giltzak eman eta joan egin behar zutela. Herritarrek apirilean 350 eta 500 euro arteko alokairuak pagatzen zituzten; enpresak 700 eta 900 artera igo nahi zituzten, hogeituro urteko babes aldia amaitzeaz zela argudiatuta. Kopuru horiek lau urteko epean igoko dituzte, progresiboki.

Plataformek "konponbideak" eskatzen zizkieten Eusko Jaurlaritzari, eta bilera bat Etxebizitza sailburu Iñaki Arriolari.



Familia eta lagun lasarteoriarrei, Eguberri onak opa dizkizuegu eta 2022. urtean jarrai dezagun ametsak elkarrekin betetzen.

URTE BERRI ON!

Beko kale bidea, 1 2. solairua • LASARTE-ORIA



Eremu sozioekonomikoan eragiteko gakoak

Lasarte-Oriako Euskara Zerbitzua antolatzaile den Udaletako Euskara Batzordeen topaketak egin ziren maiatzaren 5ean eta 6an. *Zer eta nola egin udaletatik eremu sozioekonomikoan euskararen erabilera indartzeko?* hausnartu zuten eta bederatzidituen parte-hartzea izan zen. Iragan urtean bezala, aurtengo saioak ere birtualak izan ziren.

Lekukoa uzteko unea

Azorteko Baselizaren Lagunak elkarteak urte askotan lagundu du Urnieta eta Lasarte-Oriako biztanleentzat tradizio bilakatu den ospakizuna antolatzen, Azorteko erromeria. Elkarteak jarduna etetea eta lekukoa uztea erabaki du, Sebastian Kerejetaren (Lasarte-Oria, 1934) eskutik jakin zituen TXINTXARRI aldizkariak errotutako usadio horri buruzko nondik norakoak.



TXEMA VALLES

Urchuegia berriro auzitara, Somoto auziarengatik

Somoton (Nicaragua) diru publikoaren ustezko prebarikazioa eta bidegabeko erabilpena dela-eta, Gipuzkoako Probintzia Auzitegiak erabaki zuen Lasarte-Oriako alkate ohiaren aurkako ikerketa berririk ez egitea. Maiatzaren 10ean eman zuen agindua organo horrek.

Gipuzkoako Probintzia Auzitegiak kaleratu zuen autoan esan zuen, besteak beste, Lasarte-Oria eta Somoto senidetze aldera sortutako bulegoak ez zeukala izaera juridikorik, baina hala ere diru publikoa bideratu zuela Nicaraguako hiri horretara. Auzitegi horrek, hortaz, arrazoia eman zion Pablo Barriok iazko otsailan jarritako helegiteari.

Udalak, kereila jarrita, argitu nahi du gertaera horiek nolakoak izan ziren. Norabide horretan, "aurrerapauso garrantzitsua" eman dela uste du. "Somoto auzia delitua izatekotan, balizko irregulartasunak eta horietatik eratorri litezkeen erantzukizunak argitzeko konpromiso argia" adierazi du.

Emakumeen* ikuspegitik begiratzeko proposamena

aSUnakek Lasarte-Oriako neska* gazteen taldeak, *Non daude emakumeak?* erakusketa egin zuten Okendo plazan. Horretan, herrian emakumeek* dute ikusgarritasun eza gaitzestearekin batera, ezinezona sortzen dizkieten puntu beltzen berri ere eman zuten. Jarduna errepasatu eta ikasturtea bukatzeko ere bilera egin zuten maiatzean.



Xumea, baina edukiz betetako erakusketa izan zen. TXINTXARRI

Benedikara eta Buruntzara igoera, Sareren aldarri

Izan Bidea dinamikaren barruan, Euskal Herriko 650 mendi tontor igotzeko deia egin zuen Sarek. Horrekin bat egin zuten dozenaka lasarteoriatarrek maiatzaren 8an. Okendo plazatik abiatu eta Benedikara eta Buruntzara igo ziren herritarrek, euskal presoek eskubideak aldarrikatzera.

Bestalde, maiatzaren 25ean Ibon Fernandez Iradi Parisera



Buruntzako talde-argazkia. LASARTE-ORIAKO SARE

eraman zuten euroagindu bat medio, hutsune juridiko bat bete eta Espainian kondenatua izan zela jakinarazteko. Azken Ostiralean bere egoeraren berri eman zuten.

"Aberasteko" mahai-inguruak

Lasarte-Oriako EH Bilduk herria egiteko moduez eta beharrez hausnartu zuen *Herrigintzen* izeneko ekimenean. Jarduera fisikoa, hezkuntza, sozioekonomia eta kudeaketa ereduaren inguruko lau mahai inguru antolatu zituen Antonio Mercero areto gunean eta Osasun zentroko gela balioanitzean. Helburua "komunitatea elikatu eta Lasarte-Oria aberastea" izan zen.



TXINTXARRI

Nafarroako erresumaren inbasioa ezagutarazten

Iñaki Lopez de Luzuriaga herritarrek *Nafarroako erresumaren inbasioa (1199-1200)* liburua aurkeztu zuen Mercero gunean. Liburuxka Nabarraldea elkarteak argitaratu du, gai zehatzak ezagutarazteko duen bildumaren barruan. Labur eta modu irakurterrean osatzen ahalegindu da lana. Edukiari buruzko nondik norakoak eman zizkien herritarrei.



Liburuaren aurkezpena. TXINTXARRI

Mendebaldeko Saharan gertatzen ari dena hizpide

Mendebaldeko Sahararekiko Euskal Herriko Lagunen Elkarteak antolatuta, MunduBat eta Gune Irekiak Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeek (GGKE) ekoiztutako *Ocupación SA* dokumentalaren emanaldia egin zuten. Hori amaituta, Juan Soroeta eta Fernando Vaquerizo gonbidatuen gogoetak entzun eta galderak egin zituzten herritarrek.



Vaquerizo eta Soroeta solasean. TXINTXARRI

Aterpeak, irudi aldaketa

Irudi korporatibo berria aurkeztu zuen Lasarte-Oriako Aterpea merkatarien, ostalarien eta zerbitzu pertsonalen elkarteak. "Berrirago da, baina urteotako esentzia eta tradizioa ahaztu gabe", zehaztu zuen Aterpeko lehendakari Miguel Angel Prietok agerraldian. Artsier establezimenduko Asier Esparzak egin du logotipo berria eta berak azaldu zuen berritze prozesua.



TXINTXARRI

Herriko elkarteetako kirolariak, podiumetik podiumera

XI. Gipuzkoako Euskal Pilota Egokituko Txapelketako buruz buruko finala jokatu zuten Loidibarren pilotalekuan

Txintxarri

Lasarte-Oriako kirol elkarteek eta kirolariek lorpen uzta oparoa izan zuten maiatzean. XI. Gipuzkoako Euskal Pilota Egokituko Txapelketako jardunaldia ere jokatu zen.

Bikotekako txapelketako jardunaldian ekainaren 26an joaktuko zen finaleko bikoteak zehaztu ziren. Buruz buruko lehian, berriz, Beñat Lizaso oiartzuarrak jantzi zuen txapela.

Lizasok, gainera, Ostadar Inklusioa taldeko Ander Altunarekin batera Master Cup txapelketako finala jokatu eta garaile izan ziren.

Igeriketa

Buruntzaldea IKTko Nahia Zudaire Borrezok igeriketa egokitutako Europako txapelketan lehiatu zen. Zilarrezko domina brontzezko dominak jantzteaz gain, Espainiako lau errokor ondu zituen.

Bidasoa XXI taldean lehiatzen zen Ainhoa Martin herritarrak, berriz, Gijongo Hiria saria eskuratu zuen. Gipuzkoako selekzioak ere jaso zuen garaikurra. Ainhoa eta Leire Martin ahizpek zein Buruntzaldea IKTko Aintzane Sarobek eta Nora Imazek parte hartu zuten sarian Gipuzkoako selekzioarekin.

Martin ahizpak elkarrizketatu zituen TXINTXARRIK garaipena baino lehen.

Beste podiumak

Aletismoari dagokionez, Enara Gonzalez Toquerok 20 urtez azpiko



Pilota egokitutako txapelketa. TXINTXARRI

Euskadiko txapelketan luzera-jauziko urrezko domina eskuratu zuen.

Ostadar Inklusioko Ane Asensio eta Diana Benedicto kideak ere Euskadiko atletismo egokituko txapelketan podiumera igo ziren. Asensio 100 metro eta 200 metro gurgildun aulkiko proban garaile izan zen; Benedictok, berriz, zilarrezko domina jantzi zuen 800 metroko lasterketan.

Bigarren postua eskuratu zuen ere Ostadar Inklusio taldeko Xuban Santinek Espainiako gazteen Boccia txapelketan.

Senior eta Jubenil mailako LOKEko lau gimnastek Gipuzkoako txapelketako lehen postuetan izan ziren. Lehen postua eskuratu zuten Garazi Gomezek eta Maitane Arroyok; bigarren izan zen Paula Martinez eta Ambar Rodriguez, aldiz, hirugarren.

Ostadar Boleibola taldeak ere hirugarren postuan amaitu zuen Gipuzkoako txapelketa.

Azkenik, Arteaga II.ak pilotako buruz buruko txapelketa nagusiko final zortzirena jokatuko zuen.

Egurrezko kutxa ametez bete dute

Viedmatik (Argentina) Seguraraino, Euskal Herri osoa eta diaspora zeharkatu zituen *Bizi gira...kutxa bira!* ekimenak, baita Lasarte-Oria ere. Arroitz herritik (Nafarroa) iritsi zen egurrezko kutxa gure herrira. Ametez jositako egurrezko kaxari harrera xume baina beroa egin zioten hainbat norbanako eta eragilek, Tximistarreta parkean.



Disziplina ezberdinek egin zioten harrera ekimenari. TXINTXARRI

"Aldaketa klimatikoari aurre egiteko" plana

Klima eta Energia Plana gauzatzen hasi zen udala. Helburu nagusietako bat da 2030. urterako %40 murriztea berotegi-efektua hauspotzen duten gasen emisioa. Diagnostika egiteko, herritarren ekarpenak jasotzen hasi zen, parte hartze prozesu baten bidez. Saio presentzial batzuk ere iragarri zituzten.

Burujabetzaruntz indarrak batuz

Lasarte-Oriako eragile eta norbanako ugarik bat egin dute Gure Eskuk eta beste zenbait sustatzailek abian jarri duten Hamaika Gara ekimenarekin. Mezu argia plazaratu zuten: bat egiteko eta elkarrekin ekiteko unea da, Euskal Herri burujabeago bat lortzeko bidean urratsak egiteko. Erreferendumaren aldeko sinadura bilketa hauspotzeko konpromisoa hartu dute; irailetik abendura izan da ekimena.



TXINTXARRI

Lasarte-Oria, eremu gorritik horira

Dirulaguntza lerroa jarri du martxan udalak. San Pedro Jaiak eta Euskararen Maratoia bertan behera geratu ziren

Txintxarri

Maiatzean nabarmena izan zen koronabirusaren oldarraldiaren jaitziera Lasarte-Orian: eguneko, batez beste, 8,3 kasu atzematik, 3,8 diagnostikatuzera. Hori dela eta, eremu gorritik horiraino jaitsi zen Lasarte-Oria hilabetean zehar.

Gainera, maiatzaren 9an bertan behera utzi zuen Espainiako Gobernuak 2020ko urriaren 25etik indarrean zegoen alarma-egoera.

Lasarte-Oriako Udalak dirulaguntza-lerro bat jarri zuen martxan. Merkatariek, ostalariek eta zerbitzu pertsonaletako negozioek egokitzapenak egin behar izan

zituzten, pandemia tarteko eta horiei laguntzeko.

Hala ere, Ostalaritza Lasarte-Oriak sektorea bizitzen ari zen egoera ekonomiko estuari aurre egiten laguntzeko eskaera batzuk egin zizkion Udalarri hilabete amaieran.

Horrez gain, San Pedro Jaiak zein Euskararen Maratoirik antolatuko ez zirela iragarri zuten Udalak eta Ttakun Kultur elkarteak. Festak batzordeak San Pedro Jaietarako egitarau alternatiboa prestatzen ari zela iragarri zuen udalak.

txitxardin
BRASA ETA TRADIZIOA

EGUBERRI HAUETAN OSPATU GUREKIN
ZURE ETXEAN EDO GURE JATETXEAN


GABONETAN ERE ZABALIK!

Shu
CASA HUMADA

Oria Etorbidea, 12 LASARTE-ORIA
943-04 62 97 | 662 06 66 79
info@casahumada.com

Familia eredu ezberdinak

Maiatzaren 15eko Familiaren Nazioarteko Eguna baliatuz, familia eredu ezberdinen gaineko erreportaje sorta argitaratu zuen TXINTXARRI-k maiatzan eta ekainean.



SEXU BEREKO FAMILIA

AGIRRE-MANTZIZIDOR FAMILIA



HARRERA FAMILIA

AROZENA-MARTINEZ FAMILIA



HARRERA FAMILIA

MERTXE RODRIGUEZ



AITA KARTZELAN

FERNANDEZ IRADI-FRESNEDA FAMILIA



AITA BAKARRA

OLAIZ-GARMENDIA FAMILIA



ADOPZIOA

OTAEGI-PEREZ FAMILIA



TXINTXARRI

Programako ibilbideaz harro

Leire Mayoz Arteagak *El Conquistador del Caribe* telesailaren XVII. edizioan parte hartu zuen. Herritarrek hemeretzi ataletan zehar egin zuena ez dute azkar ahaztuko programaren jarraitzaileek, ezta berak ere. Julian lantzi aurkezleak ezizena eta guzti jarri zion: *La guerrera de Lasarte* (Lasarteko gerlarria). Harekin solastu ginen bere esperientzia ezagutzeko.



Inaxio Oiarzabalen hitzaldia. TXINTXARRI



ORIANTE BHI

Herriko ofizioak, pantailan

Oriarteko DBH4 ikasleek Zinema (H)abian ekimenean aurten egindako *Lanartean* dokumentala aurkeztu zuten ekainaren 18an. Ez beraiek bakarrik, ordea. Izan ere, pandemia dela-eta iaz erakusterik izan ez zuten *Oroitzapen argiak* lanaren egileek ere aukera bera izan baitzuten. Pantaila handian ikusi baino lehen euren lanaren berri eman zuten TXINTXARRI-K.

Basoak aztergai, Agenda 30ean

Landaberri ikastolako eta Sasoeta ikastetxeko 1.000 ikasle baino gehiagok parte hartu zuten Eskolako Agenda 30 egitasmoan. Lehorreko ekosistemetakoz bizia jorratu zuten, eta zehazki, basoak. Landutakoaren diagnostikoa eta ondorioak partekatu zituzten Udalarekin, ekainaren 15ean. Udal ordezkariak adi entzun zituzten ikasleen ekarpenak.



TXINTXARRI

Salbuespeneko espetxe politika aldatzeko ekimena

Sare ekimenak *Ibilian-Ibilian*, *etxerako bidean* dinamika jarri zuen martxan Hego Euskal Herrian. Lasarte-Orian bi ekintza egin zituzten. Hilaren 8an, *Euskal presoak: nondik gatoz, non gaude eta nora goaz?* hitzaldia eskaini zuen Inaxio Oiarzabal Sareko koordinatzaileak; 17an, berriz, *Izadi gurasoekin etxera* dokumentala proiektatu eta solasaldia egin zen.

Indarkeria matxista salatuz

Gune Publikoan Ehuntzeko Nazioarteko Egunarekin bat egin zuen Lasarte-Oriak. Belaunaldi desberdinetako heritarrek jostearekin batera, indarkeria matxista salatu zuten Zumaburu eliza aurrealdean. Horrez gain, Lasarte-Oriako udal korporazioko kideak eta zenbait herritarrek elkarretaratzea burutu zuten ekainaren 14an Okendo plazan, Tenerifen jazotako eraiketak gaitzesteko eta salatuzko asmoz.



TXINTXARRI

Bi lasarteoriarrek parte hartu dute IkerGazte kongresuan

U E U U d a k o E u s k a l Unibertsitateak antolatzen duen IkerGazte kongresuan Maider Galardi eta Jon Alkortaren ikerketa lanak izan ziren protagonistetako bi. Lehenak ahozko aurkezpena egin zuen; bigarren lana, berriz, poster formatuan jaso eta bistarazi zuten.

Omenaldi hunkigarria jaso du Elena Miguelek

Zumaburun aurrena, eta Sasoeta-Zumaburun gero: 36 urtez aritu da ikastetxe horietan lanean Elena Miguel herritarra. Irakasle, zuzendari eta idazkari egin zituen. Erretiroa hartu eta ia urtebete beranduago omenaldia egin zioten gurasoek, zentroko langileek, Burunzpe guraso elkarteak eta familiak.



Elena Miguel, lore sortarekin. TXINTXARRI



Emanaldietako bat. TXINTXARRI

Kukukako ikasleek onena eman zuten oholtza gainean

Kukuka Dantza eta Antzerki Eskolako ikasleek agur esan zioten ikasturteari. Itxiera gisa, hiru saioko jaialdia egin zuten asteburuan Oriarte Landaberriko jolastokian. Antzerkia zein dantza landutakotik inprobisaziora. Ikasturtean zehar egindako lanaren lagin bat erakutsi zieten ikustera joandako dozenaka lagunei.

Ezohiko San Pedro jaiak

San Pedro Jaiak ez, baina kultur ekintza ezberdinez betetako egitaraua antolatu zuen Lasarte-Oriako Udalak. Besteak beste, Makulu Ken taldea, Mikel Bermejo bakarriketalaria eta Ane Labaka zein Lierni Rekondo bertsoariak izan ziren Manuel Lekuonako oholtzan.

Ttakun Kultur Elkarteak, berriz, 'Gure Pabintxiak' sariak eta gazteentzako tupper janaz eta jolas arratsaldea antolatu zituen. Aurten Felixi Tapiak eta Patxi Manchadok jaso dute saria.

Sorgin Jaiak ekimenak ere egoerari egokitutako jaiak egin zituen herriari kolorea emateko asmoz.

Ekainaren 28an, herritar talde batek Sorgin dantza inprobisatua egin zuen Okendo plazan. San Pedro egunean diana berezia ere egin zuten txistulariek.



EDORTA ALDAZABAL/TXINTXARRI

Eskailera, ostadarraren kolorerik gabe

Lasarte-Oriako Udalak, ekainaren 28ko Harrotasunaren Nazioarteko Egunarekin bat eginik, ezohiko udalbatzarrean Gehitu elkartearen *LGTBI harrotasunaren nazioarteko eguna, ekainaren 28koa* manifestua onartu zuen.

Horrez gain, Euskotrenetik Mirentxura igotzeko eskailera koloreztatu zituen, *Aniztasunerantz eskalatzen* lelopean. Ekainaren 29an, aldiz, udalak bidalitako ohar baten bitartez jakinarazi zuten eskaileretako koloretako biniloak kendu zituela baten batek; Agustin Valdivia alkateak jarrera hori gaitzetsi zuen.



Herritarra, pozarren sariarekin. AGATHA S.F.

Gipuzkoako narrazio laburrik onena

Coca-Cola Narrazio Laburren lehiaketan parte hartu zuen Agatha Sancho herritarrak. COVID-19a dela-eta, aurtengo edizioan DBH 2. eta 3. mailako ikasleek parte hartu zuten; epaimahaiak 13.683 kontakizun jaso zituen, eta lehen saria eman zion herritarrarenari.



EEPPhko ordezkariak. TXINTXARRI

Euskal Eskola publikoz harro

Euskal Eskola Publikoaz Harro topagunearen aldarrikapenekin bat egin zuten Lasarte-Oriako hiru ikastetxeetako guraso elkarteek. Hezkuntza sistema publikoaren balioa aldarrikatu zuten, eta nabarmendu zuten eredu horri "baliabideak" eman behar zaizkiola. Egitasmoaren nondik norakoak azaltze aldera, eta herri mailan ezagutzera emateko asmoz eurekin bildu ginen.

Herritarrek dominez betetako denboraldi amaiera

Kirol jarduera ezberdinetako kirolariak izan dira podiumean

Txintxarri

Batzuek denboraldi amaiera eta besteak hasiera ekainean herriko elkarteek eta kirolariek ez zuten atsedenik izan.

Ostadar Atletismo saileko kideak maila ezberdinetako Espainiako, Euskadiko zein Gipuzkoako txapelketetan lehiatu ziren eta domina ugari eskuratu zituzten. Nabarmentzekoa da hilabete amaieran Naroa Furundarenak eta Maider Rekondok Absolutu mailako Espainiako txapelketan parte hartu zutela eta Gipuzkoako txapelketan, taldekako lehen postua eskuratu zuela.

Ostadar SKT Inklusio ataleko Ane Asensio bi urrezko domina lortu zituen Espainiako txapelketan. T34 mailako gurgildun aulkiko 100 m. eta 200 m. lasterketetan parte hartu zuen.

Futboleko denboraldia amaitu zuten herriko taldeek eta futbol jokalariek; Irati Urruzola *Urru* kide duen Alaves Gloriosas taldeak lehen mailara igotzea lortu zuen.

Buruntzaldea IKTKo Nahia Zudairek zazpi urrezko eta zilarrezko domina bat, bost marka pertsonal eta Espainiako hiru errekor berritu zituen IDM Berlin 2021-World Para Swim World Series proban.

Hernani pilota elkarteak dabilen Peru Urdanpilletak trinkete mailako finala irabazi zuen Unax Manterola lagun zuela. Hilaren amaieran, berriz, Umore Ona txapelketan garaile izan zen Julen Deskargarekin batera.

Ostadar Saskibaloitako I. Seniorak Luberriren aurka jokatu



Furundarena, Espainiako txapelketako 23 urtez azpiko podiumean. OSTADAR ATLETISMOA

zuen finala, baina ezin izan zuen garaipena erdietsi.

LOKE Judoko Ekhi De La Cruzek euskadiko txapelketan parte hartu eta brontzezko domina jantzi zuen.

Aizpea Arroyo herritarrak Tolosa gimnasia elkartearekin parte hartu zuen Euskadiko txapelketan eta urrezko domina eskuratu zuen.

Buruntzazpi Txirringularitza eskolako Haimar Etxeberriak Gipuzkoako erlojupeko txapelketa irabazi zuen eta Eibar txirringulari taldeko Asier Pozok 23 urtez azpiko brontzezko postua eskuratu zuen. Etxeberria junior mailako Gipuzkoako Itzulian atariko erlojupekoan eta Andoain-Andoain etapan ere irabazle izan zen.

Denboraldi hasiera

Arraun denboraldiak, berriz, hitzordu garrantzitsuak izan zituen Liga hasi baino lehen.

Gipuzkoako txapelketan, Donostia Arraun Lagunak taldeak eraman zuen bandera lehen aldiz. Hondarribiak, berriz, hirugarren postua eskuratu zuen Lekeitioko Ikurriñan.

Hipodromoan ere hasiera eman zitzaion udako denboraldiari.

Garcia

AUTOBUSAK

Nafarroa etorbidea, 32 2.A
(Leku-Eder etxea) - ZARAUTZ

Tel: 609 47 94 78

info@garciabus.com - www.garciabus.com



Urte berri zoriontsua
izan dezazuela!

• Edozein eratako bidaiak egiteko zerbitzu proposak

• Bestelako zerbitzuak





2022

URTARRILA

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						

OTSAILA

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
					5	6
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28						

MARTXOA

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
					5	6
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

APIRILA

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
					2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	

MAIATZA

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
					7	8
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

EKAINA

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
					4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

UZTAILA

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
					2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

ABUZTUA

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
					6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

IRAILA

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
					3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

URRIA

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						

AZAROA

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
					5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30				

ABENDUA

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
					3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

Udako Txokoek eta udalekuek, hiru hamarkada

Koronabirusak eragindako egoerari aurre egin eta indarrean zeuden neurriak kontuan hartuta, hamaika abentura eta jarduera gozatzeko aukera izan zuten Ttakun Kultur Elkartearen udako bi jardueretan parte hartu zuten gaztekoek. Haiek bezala, azken 30 urteetan belaunaldi askotakoek gauza bera egiteko aukera izan dute aisia euskaraz sustatzeko jarduera hauei esker.



TXINTXARRI

Agur, Sendoki kultur batzordeari

1981. urtean sortu zen Sendoki kultur batzordea, Euskal Herriko zein nazioarteko kultura Lasarte-Orian sustatu eta herrian zabaltzeko helburuarekin. 40 urte geroago bide horren amaiera iritsi dela iragarri zuten uztailan. Hamaika ekimenen artean, Santa Ana Eguneako artisau azokaren, desfilearen eta parodiaren antolaketan lan egin dute kideek.

Aroa Lasaren lehen laburra

Musikari lasarteoriatarrek *Banoa* lehen lan laburra plazaratu zuen uztailan. Bost abestirekin osatutako EP-a da, Gartxon Unsain lehengusuarekin batera egindakoak. Lasaren hitzetan, "joatearen prozesuan sentitzen dituen zirrara ezberdinak ageri dira" haieran. Manuel Lekuona kultur etxean egindako zuzenekoan aurkeztu zizkieten bi musikariek herrikideei.



Autobus hobeak, zerbitzu kaskarragoa

Uztailaren 1etik aurrera, Lurraldenuseko 30 autobus berri martxan jarri zituzten Buruntzaldea eta Tolosaldea eskualdeetan. Berritasunen artean, hirutik bi hibridoak dira eta airea iragazteko puntako sistemak dituzte, pandemia garaian, beraz, seguruagoak dira ibilgailuak. Hilabete amaieran, ordea, Lurraldebusen autobus zerbitzuan egindako ordutegi murrizketa "izugarriak" salatu zituen Kontseilu Sozialistak eta doako zerbitzua, kalitatezko eta unibertzala aldarrikatu.

Pandemiaren eragina arintzeko laguntzak

Koronabirusaren pandemiak herriko merkatariei, ostalariei eta zerbitzu pertsonaletako enpresei eragin dizkien kalteak arintzen saiatzeko asmoz, dirulaguntza lerro bat onartu zuen Lasarte-Oriako Udalak. Horretara, 400.000 euro bideratu zituen: 180.000 euro ostalariak laguntzeko eta 220.000 merkatariek eta zerbitzu pertsonalak laguntzeko.

Korporazioak oinarriak onartu ondoren, eskaerak egiteko epea zabaldu zuten. Aurreikusitako 90 bat tabernari eta 278 denda eta zerbitzuek eskatzea



Sagardo dastaketako irudia. TXINTXARRI

Sanpedroetako sagardo dastaketa, kanta eta dantza jira

Koronabirusa tarteko, San Pedro Jaietan ospatu ohi dituen sagardo dastaketa eta kanta eta dantza jira uztailleko bigarren asteburuan aurrera eraman behar izan zuen Ttakun Kultur Elkarteak. Oriamenditik hasi, eta Loidi-barren frontoiraino, giro ederra ez zen falta izan.

Oriamendin elkartu ziren Xumela eta Plazadantza egitasmoetako kideak eta frontoira bidean jai giroa zabaldu zuten emanaldi laburrak eginez. Han, sagardo dastaketak hartu zuen lekukoa. Bi txandetan egin zuten, eta mugek berotasun pixka bat kendu bazioten ere, bertaratutakoek gustura dastatu zituzten sagardoak.

Mayoz, ikusleen gogokoena

El Conquistador del Caribe saioan Leire Mayoz herritarrak egindako ibilbidea saritu zuten zaleek. Ezin izan du ikurrina hartu Dominikar Errepublikan, baina bera izan zen ikus-entzuleen lehiakide gogokoena aurten, 13.000 bozka baino gehiagorekin. Mikel Arruti lasarteoriatarra, programako lehen kanporatua izan bazen ere, laugarrena izan zen ikusleen sailkapen horretan.





TXINTXARRI

Santa Ana eguneko ekitaldiak

Astebete luze lehenago hasi ziren Santa Ana Egunari lotutako ekimenak. Lehenik, artisautza azoka egin zuten, eta aspaldiko partez, salmenta postuak eta jendea bueltatu ziren Okendo plazara. Egoerara egokituta bada ere, ohiko jarduerak ez ziren falta izan: meza Ama Brigitarren komentuan, Erketz dantza taldeko kideen aurrekua Santa Ana karkabaran eta parodia, noski.



Nahia Zudaire Borrezo igerilaria.

Nahia Zudaire Tokioko Joko Paralinpiadetara sailkatu zen

Kirol Kontseilu Gorenak (CSD) eta Espainiako Paralinpiar Batzordeak (CPE) Tokioko Joko Paralinpiarretan Espainia ordezkatuko duten kirolarien zerrenda jakitera eman zuten, uztailaren 14an. Hautatutakoen artean, besteak beste, Buruntzaldea IKTko Nahia Zudaire Borrezo igerilari gaztea zegoen.

Zudairek 400 metro libre probako B gutxienekoa lortu zuen otsailean, Bartzelonako Igeriketa egokitutako nazioarteko sarian. Horrekin batera, Funchaleko Europako Txapelketan zein Berlingo World Seriesetan lortutako emaitzek behin betiko zerrenda horretan egoteko balio izan zioten Zubietako igerilari gazteari.

Abuztuaren 28tik irailaren 3ra bitartean lehiatuko zen igerilari gaztea, S8 mailako hiru probatan. Hara joan artean, ordea, beste txapelketa batzuetan parte hartzen eta emaitza onak lortzen jarraitu zuen.



Chourrautek, zilarrezko domina

Balentria ederra egin zuen Maialen Chourraut herritarrek uztailaren 27an, Tokio 2020 Olinpiar Jokoetan. Kasai kanalean jokaturako ur bizietako eslalom K1 mailako final zirraragarrian, zilarrezko domina lortu zuen. Metal bakoitzeko bana du lasarteoriatarrek: 2012an Londresen leporatutako brontzeari eta 2016ko Rioko urreari zilarra gehitu dio Tokion.



Arraun Lagunak, txapeldun

Aiora Belartietari herritarra kide duen traineruak uztailaren 21ean lehenengoz lortu du Euskadiko txapelketa eta Euskadiko zein Gipuzkoako txapeldun da. Euskotren Ligan, Getxoko bandera eskuratu du berriki, eta sailkapeneko lehen postuan da, Orio Orialkirekin berdinduta. Lehen txandan lehiatu zen Orio, Deusto eta Ondarroaren aurka. Lehenak izan ziren estropadan eta pozez lehertu ziren helmugan.



2022 zoriontsua opa dizuegu!

Zirkuito ibilbidea, 12 20160 • LASARTE-ORIA
Tel. 943-37 14 40 Mugikorra: 608 39 18 85
carroceriaslasarte@carroceriaslasarte.com

Carrocerías Lasarte Karrozeria

Trebeak gara kolpe handiak konpontzen

- Kabina labeduna
- Txapak zuzentzeko oinarri unibertsala
- Tapizatuen garbiketa

Herrikideen harrera beroa

Urrea, zilarra eta brontzea. Hiru metaletako domina bana du Maialen Chourraut piraguistak K1ean. Azkena eskuratu berrian eta Espainiako Txapelketaren atarian, jaioterrian herrikideen eta agintarien aitortza jaso zuen ekitaldi xume eta hunkigarrian

Txintxarri

"Eskerrik asko bihotz-bihotzez; eskerrik asko Lasarte. Domina hau zuena ere bada, zuek ere hemen zaudete". Tokion astebete lehenago irabazitako zilarrezko domina eskuetan, hitz horiekin eskerrak eman zizkien Maialen Chourraut piraguistak Okendo plaza bete zuten herrikideei. Hunkituta jaso zituen haien txaloak eta Lasarte-Oriako Udalak egindako omenaldia. Astebete zehaztutako orduan hurbildu ahala, poliki-poliki, herritarrak biltzen joan ziren eliza aurrean eta errepide inguruan. Arkupean, berriz, zenbait udal ordezkarri, Agustin Valdivia alkatea buru, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko kirol diputatu Harkaitz Millan eta kirol zuzendari Goizane Alvarez. Chourrauten senar eta entrenatzaile Xabier Etxaniz helduan, agurtu, eta errepidera irten zen bikotea, alkateak eta diputatuak lagunduta, eta agurra dantzatu zieten. Udalbatza aretoan egin beharreko ekitaldira jo

aurretik, Chourrautek buelta eman du eta eskuarekin agurtu zituen bertaratutako lasarteoriatarrek.

Udaletxea eta plaza, lepo

Senideak albo batean, agintariak bestean, eta gutxi ez ziren komunikabideak, zutik. Haien aurrez aurre zeuden bi besaulki zurietan eseri ziren Etxaniz eta Chourraut. Alboko mahaian, berriz, bi zapi zuri Lasarte-Oriako armarrria eta zorion hitzekin. Alkatearen eta kirol diputatuak zoriondu zuten egindako "balentriagatik", emakumezkoen kirol historian "mugarri" garrantzitsua izan delako "emakume bat eta ama izan den emakume bat noraino irits daitekeen" erakutsita. Gazteentzako adibidea dela nabarmendu zuten bi agintariek, "arrakasta erraz eta nagusi den" egungo gizartean bere ahalegina eta adorea erreferente ona baitira.

Adierazpenen ondoren, mahai gaineko lore sorta bana eman zieten Chourraut eta Etxanizi eta bakoitzaren izena zeraman zapia sorbalda gainean jarri zieten. Orduan bai, omenduaren

txanda izan zen. "Oso eskertuta nago harrera bero honengatik, baina, batez ere, bide guzti honetan, egunero, Lasarte-Oriara etortzen naizen bakoitzean, lasartear batekin aurkitzen naizen bakoitzean... beti ematen didaten animoengatik, berotasunagatik. Bidea luzea da, bost urte dira, Olinpiar Jokoak lau urtean behin bakarrik dira, baina Lasarte-Oria eta lasarteoriatarrek ondoan eduki ditut eta hori oso eskertzekoa da. Bultzada horrekin joan naiz". Zati askotan partitu eta herrikideekin banatu nahiko lukeen zilarrezko domina atera du lehenengoz, eta berezia bada ere, bideari eman dio garrantzia. Berak egindakoari eta bere ondorengoei egin dezaketinari. Bere izena izango duen kanalari esker "Maialen gehiago" egotea espero du.

Ondoren, lepo zegoen plazako herrikideen agur beroa jaso zuen. Aurkezlearen zenbait galdera erantzun zituen, beste behin ibilbideari garrantzia. Domina eskuan, hura eta bertaratutako guztiak hatzarekin seinalatuta, lasarteoriatarrena ere badela errepikatu du Chourrautek.



Udaletxean egin zioten harrera instituzionala, lehenik. TXINTXARRI




Maialen Chourraut, zilarrezko domina eskuan, eta Xabier Etxaniz bikote eta entrenatzailea. TXINTXARRI



Balkoitik hitz egin zien Chourrautek herrikideei. TXINTXARRI

COVID-19ak kutsatutako 160 lasarteoriar gehiago

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren eta Osakidetzaren datuen arabera, 2020ko martxotik 2.099 herritar kutsatu ditu SARS-CoV-2 birusak, Lasarte-Oriako biztanleriaren %11. 24 pertsona zendu dira koronabirusaren eraginez



TXINTXARRI

Txintxarri

COVID-19ak ez zuen oporrik hartu abuztuan. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren eta Osakidetzaren datuen arabera, Lasarte-Orian 160 positibo zenbatu zituzten urteko zortzigarren hilabetean; eguneko, batez beste, bost pasatxo (5,2). SARS-CoV-2 birusaren intzidentzia uztailean baino apalagoa izan zen -29 kasu gutxiago detektatu zituzten abuztuan-, baina iazko abuztukoa baino altuagoa -113 kasu iaz, eta 47 gehiago aurten-. Hilabeteko 11. eta 13. egunetan diagnostikatu ziren kutsatze gehien, hamabina.

Mantso bada ere, Lasarte-Orian apaltzen zihoan koronabirusaren intzidentzia, nahiz eta herria gunee laranja zegoen oraindik, 336,05eko tasarekin.

Herritarren %11 kutsatu da

Datu ofizialen arabera, pandemia lehertu zenetik 2.099 positibo atzeman ziren ordura arte Lasarte-Orian. 19.045 pertsona bizi dira gure herrian, eta beraz, biztanleen %11 kutsatu zituen COVID-19ak. Ia-ia guztiak sendatu ziren baina, tamalez, 24 pertsona zendu dira.

2020ko azaroa izan da pandemia hasieratik intzidentzia gehieneko hilabetea Lasarte-Orian:

275positibo erregistratu ziren orduan, eguneko 9,2. 2021eko apirilean (248), 2020ko urrian (215) eta aurtengo urtarrilean (215) ere gaintitu da 200 kutsatzeen langa.

Eskualdeko udalerrietako intzidentzia tasa metatuei erreparatuz gero, kolore laranja gailentzen zen abuztuan: 300 eta 399 arteko tasak zituzten Andoainek, Hernanik eta Lasarte-Oriak. Usurbilen altuagoa zen birusaren transmisioa, gunee gorrian zegoen. Astigarragan eta Urnietan, aldiz, apalagoa zen; bi udalerrri horiek eremu horian zeuden, 60 eta 299 arteko intzidentzia tasa metatuekin.



TXINTXARRI

Euskotren Liga, Lugañenerentzat

Aiora Belartietia, Paula Gonzalez eta Izar Agirretxe kide dituen Donostia Arraun Kirolak taldeak lehenengoz irabazi zuen Euskotren Liga abuztu amaieran. Gipuzkoako zein Euskadiko Txapelketetako banderak lortu ostean, garaipen berri bat gehitu zuten urteko zerrendara. Eta ez zen azkena izango: aste gutxira Kontxako Bandera ere eskuratu baitzuten.



TXINTXARRI

Zudairek, bi diploma olimpiko

Abuztuaren 28tik irailaren 3ra bitartean Buruntzaldea IKTKo Nahia Zudaire Borrezo igerilari gaztea Tokioko Paralinpiar Jokoetan lehiatu zen. S8 mailako hiru probetan parte hartu zuen zubietarrak eta bitan laugarren postuan amaitu, diploma eskuratuz. 100 metro tximeleta proban, gainera, gutxigatik gelditu zen podiumeko hirukotetik kanpo.

JOLASTEKO GARAIA DA



EMAIOZU ASTIA EGUNERO

SEME-ALABEKIN JOLASTEAK HAIEN GARAPENEAN LAGUNTZEN DU ETA ZUEN ARTEKO HARREMANA INDARTZEN DU

 **Gurasotasuna**

www.euskadi.eus/familia

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
BERROGALDIA, JUSTIZIA ETA OSASUN POLITIKAK
 DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Beste ikasturte bat pandemiaren eraginpean

Lasarte-Oriako ikasle eta irakasleek ikasturte berriari ekin zioten irailean. COVID-19aren pandemia oraindik oso presente dagoela eta protokoloak mantenduta. Lehen egunean, Sasoeta-Zumaburun, Landaberri-Garaikoetxean eta Oriarten izan zen TXINTXARRI

Txintxarri

Uztaila eta abuztua opor giroan igaro ostean, berriz ere ikasketei ekiteko garaia iritsi zen. Iazko nekeak gaindituta, indarberrituta, deskantsua hartuta, ziur batek baino gehiagok sentitu zuela gelakideekin elkartu eta udan bizitakoak elkarbanatzeko gogo, nahiz eta beste hainbatek gusturago kontatuko lizkioketen elkarri kontuak, eskolatik kanpo.

Ekidin ezina da, ordea, ikastetxera itzultzeko eguna, eta Lasarte-Oriako ikasleek ez zuten hutsik egin. Irailaren 9an ekin zioten Sasoeta-Zumaburu, Landaberri-Garaikoetxea eta Oriarte BHIko ikasle eta irakasleek 2021-2022 ikasturteari. Urduritasuna, poza, emozioa, tristura. Emozio saltsa ugari sortu ziren ikastetxeen sarreretan.



Ikasle talde ugari, Oriarte Larrekoetxe eraikinerara sartzen. TXINTXARRI

Ikasturte berri bat hasi zuten, baina COVID-19ak eragindako pandemiari aurre hartzeko ezagunak zituzten neurriei eutsi behar izan zieten. Jakin badakite, esaterako, maskarak jantzita egon behar dutela, eta burbuila

bereko ikaskideekin batu daitezkeela.

Horrela, eskolako materialez betetako bizkarrekoak gainean hartu eta irakasleek prestatutako ikasturteari aurre egin beharko diote ordutik.



Txema Pikabea sariarekin. TXINTXARRI

Letrame saria jaso du Txema Pikabearen 'Lía' nobela beltzak

Txema Pikabea Bereziartuak (Lasarte-Oria, 1971) martxoan argitaratu zuen *Lía* izeneko bere azken idatzizko lana. Letrame argitaletxearekin argitaratu zuen eleberria, eta hain zuzen ere, argitaletxeak antolatutako Primeros Premios Letrame 2021 sari banaketako garailea izan zen liburua, nobela beltzen sailean.



TXINTXARRI

Bakailao pintxoaren ibilbidea

Gipuzkoako beste hamar udalerrietako ostalaritza establezimenduekin batera, Lasarte-Oriako Arkupe, Avenida, Escalerilla, Jalgi eta Tiburtzio Artizar tabernekin erabaki zuten Gildaren eta Pintxoaren Kofradiak antolatutako Bakailao I. Ibilbidean parte hartzea. Arrain mota hori oinarri zuen pintxo bana prestatu behar izan zuten partaideek, bakoitzak bere erara, eta emaitza oso bestelakoa sortu zuten. Herritarrek bi astez izan zuten gutizia horiek dastatzeko aukera.

Lur azpiko edukiontzia kentzearen alde

Herri galdeketa egin zuen Lasarte-Oriako Udalak apirila amaieran lur azpiko edukiontziekin egin beharrezkoaz, baina parte hartzea oso baxua izan zen. Hilabete batzuk geroago, udal gobernuak horiek kentzea proposatu zuen eta errefusa biltzeko kontenedoreei txartel elektronikoa jartzea, organikoa biltzeko ontziari bezala.

Korporazioa osatzen duten beste udal taldeengandik "iritzi onak" jaso zituztela adierazi zuten udal arduradunek, egin beharreko "lan asko" bada ere.



Lur azpiko edukiontzia. TXINTXARRI

Hiri hondakinak biltzeko eredu lantzerakoan oinarria jasangarritasuna, irisgarritasuna eta aurrekontua izango dira eta proposamenaren ardatzetako bat ekonomia zirkularra lantzea izango da. Eredu berria onartzekotan 2022. urtean zehar gauzatuko da.

Xumela berriz kantuan

Xumela koruko lagunek irailaren 20an ekin zioten ikasturte berriari, betiko martxari heltzeko gogoz. 2020ko martxoan eten behar izan zituzten entseguak eta saioak, eta aurtengo uztaila arte ez ziren berriro elkartu. Korua 2006an eratu zuten, Zabaleta Auzolanek, Ttakun Kultur Elkartek eta Landaberri Guraso Elkartek bultzatuta.



TXINTXARRI



TXINTXARRI

Zaldi boladari agur esan diote

Donostiako Hipodromoak eta zaldien zaletuek udako denboraldiari agur esan zioten. Azken jardunaldian, lasarteoriarrak protagonista izan ziren. Raul Ramos jockeyak Donostia Sari Nagusia irabazi zuen; Angel Imaz prestatzaileak, berriz, Donostia Kirola saria.

Pintaketak Oriarten

Irailaren 9an Oriarte Larrekoetxe institutuko patioan pintaketa "faxista, matxista, sexista eta homofoboak" agertu ziren. Horiek gaitzesteko elkarretaratzea deitu zuen aSUnak neska* gazteen taldeak eta berrehun bat lagun batu ziren Okendo plazan. Lasarte-Oriako Udalak ere arbuia zuen gertakaria eta adierazpen instituzional bat onartu zuen.



TXINTXARRI

Erdi Arora bidaia

Urtebeteko etenaren ondoren, Erdi Arok azoka Lasarte-Oriara itzuli zen. Denboran jauzi egin, eta hiru egunez iraganeko giroak hartu zituen Aralar eta Andatza plazak. Antolatzaileek espero baino eguraldi hobea egin zuenez, jende ugari bertaratu zen ekimenera, artisauen 50 postuetan kuxkuxeatzera edo tabernan indarrak berritzera, janez eta edanez. Bitartean, etxeko gazteenek Eulalia ipuin kontalariaren kontakizunak entzuteko parada izan zuten.



TXINTXARRI

Lugañene, Kontxan lehena

Donostia Arraun Lagunak taldeak denboraldi amaiera paregabea eman zion XVI. Emankumeen Kontxako Banderan garaipena lortuta. Lehenengoz eskuratu du Aiora Belartietan lasarteoriatarra kide duen taldeak. Hitzordu garrantzitsu horren historian bere izena idatzi zuen gainera Donostiako ontziak: 71 urte ziren Gipuzkoako hiriburuko eskifaia batek bandera azkenekoz eskuratu zuenetik.



TXINTXARRI

Lasarte-Oria Bai! krosik ez

Ostadar SKT-k aurtengo Lasarte-Oria Bai! Krosa eta Kros Festa bertan behera uzteko erabakia hartu zuen iraila amaieran. Arrazoi nagusia 25. urteurreneko ospakizunak aurrera eramateko ezintasuna izan zen. Horrekin batera, Eusko Jaurlaritzak jokaturako lasterketetan jarritako baldintzak, pandemiari aurre egiteko helburuarekin.



TXINTXARRI

Ibaiertza garbitu dute

Aste Berdearen bigarren jardueran parte hartu zuten 40 bat herritarrek: Oria ibaiertzaren garbiketa. Bi orduraz aritu ziren eta hondakin ugari pilatu zituzten, poltsa eta kubo ugari betez. Besteak beste, latak, botilak eta plastikoak atera zituzten. Aurretik, Zumaburu parkean zakur kakak eta bestelako zaborrak biltzen aritu ziren. Hain zuzen ere, parke horretan bertan egin zuten astebete lehenago baso bainua jarduera, hau da, naturarekin batzeko dinamika.



TXINTXARRI

Saria, Pablo Barriorentzat

Idazle lasarteoriatarrek hirugarrenez irabazi du Iruñeko Udalak eta Nafarroako Antzerki Eskolak antolatutako Nafarroako Haurrentzako Antzerki Testuen Lehiaketa, *Dzist-Dzast: Flamenka, endredo ugari han-hemenka* lanarekin. 2.500 euroez gain Nafarroako Antzerki Eskola 2022ko apirilean taularatu du obra.



IRUÑEKO UDALA

Mendian gora, festa giroan

Lasarte-Oria Tail Mendi Elkarteak antolatutako III. Mendi Festa ospatu zuten iraila amaieran. Eguraldi ona lagun, 480 lagun animatu ziren Ibilaldi Luzea, Martxa Motza eta Ttipi-ttapa Martxa egitera. Familian goiz atsegina pasatu zuten mendizale askok Buruntza mendian gora eta behera eginez.



TXINTXARRI



Urte berri on!

**FOTOKOPIAK
TXURI BELTZEAN ETA
KOLORE DIGITALA**

- Koadernaketak
- Plastifikatuak
- Bulegoko materiala
- Material informatikoa

**Ploterra, eskanerra
eta planoen kopiak**

Kale Nagusia, 34 behea 1 • Lasarte-Oria
Tel.: 943-36 69 30 - Faxe: 943-36 69 31 | copilasarte@gmail.com



**2022 zoriotsua
opa dizuegu!**

Kale Nagusia, 40
Tel: 943-36 39 64
LASARTE-ORIA

Dravet sindromea ikusarazteko ekitaldiak

Gaiari buruzko erreportaje berezia osatu zuen TXINTXARRI-k urriaren 22ko zenbakian: *DraveTzari* erakusketaren eta *Higa* ikuskizunaren berri emateaz gain, Aras Perea familia elkarrizketatu zuen, Dravet sindromea baitauka Norak, alabetako batek

Maddi Zaldua

Dravet sindromea gaixotasun arrarotzat izendatu dute erakundeek, jaiotzen diren 20.000 umetatik bakarrak gara dezakeelako, batez beste. Gaitz horren gainean gehiago jakite aldera, erreportaje berezia prestatu genuen urriaren 22ko zenbakian: Nora Aras Perearen kasua ezagutzeko, Luis Miguel Aras aita elkarrizketatu genuen; kultur etxean ikusgai izan zen *DraveTzari* erakusketaren berri eman genuen eta Gero Axular taldeak kultur etxean oholtzaratu zuen *Higa* ikuskizunari buruz jardun. Horretarako, Jose Luis Unzurrunzaga zuzendaria eta Andoni Iparragirre musika zuzendariarekin hitz egin genuen.

DraveTzari-k hamasei urte ditu, eta Nora Aras Perea du izena. Dravet sindromearekin jaio zen,

sindrome eliptiko larrienetako batekin. Haren aita da Luis Miguel, eta TXINTXARRI-ri gaitz horren berri emateaz gain, familiaren egunerokoari buruz jardun zen luze eta zabal. Gogoeta bat: "Alabari erne bizi gara 24 orduz; krisiek ez dute abisatzen".

Erakusketa eta ikuskizuna

Bi astez, DraveTzari erakusketa bisitatu ahal izan zuten herritarrek: eritasuna bistarazi eta kontzientzia sortzeko asmoz ondu zuten Apoyo Dravet Taldeak eta Gero Axular Dantza Taldeak. Azken horrek emanaldietan erabiltzen dituen jantziak hamabi erakutsi zituzten. Hori ez ezik, Gero Axularrek herrian estreinatu zuen *Higa* ikuskizun berria. Emakumeek historian zehar pairatu izan duten zapalkuntza lantzen dute.



Iparragirre eta Unzurrunzaga. TXINTXARRI



'Higa' ikuskizuna, kultur etxean. TXINTXARRI



Nora (eskuinean), familiarekin. TXINTXARRI



Bi herritar, taberna batean. TXINTXARRI

Osasun neurri ia guztiak bertan behera utzi zituzten

Urria hastearekin batera, osasun larrialdia amaitutzat eman zuen Eusko Jaurlaritzak, eta indarrrik gabe utzi zituen osasun neurri ia guztiak, jende pilaketak zeudenean maskara derrigorrez erabiltzen jarraitzearena izan ezik. LABI batzordea desegin, eta koronabirusa gaixotasun endemikotzat har zitekeela adierazi zuen Iñigo Urkullu lehendakariak.



INGE MENDIOROZ

Ikuspuntu berri batetik begira

Mikel Laboak Joxean Artzeren hitzei ahotsa jarri, musikaz jantzi, eta kanta moduan aieratu zituenetik *Txoria txori* pertsona andanaren bizitzaren parte da, askotariko bizipenen soinu banda, eta esanahi propio guztiez harago, askatasunaren ereserki. Ideia horiei tiraka joan-etorri berezi bat osatu zuten zenbait diziplinetako artistek, artean, Lasarte-Orian hogeitau urte baino gehiago daramatzan Inge Mendioroz andoaindarrak. "Kantari omenaldia da, sortzaile batzuek urte askoren ondoren ikuspuntu berri batetik egindako begirada", laburbildu zuen Behirada bideoak-eko arduradunak. Ikus-entzunezkoa zuzendu zuen Mendiorozek.



TXINTXARRI

Lekukotzekin, liburua

Lasarte-Oriako memoria historikoaren berreskuratzean diharduen Islada Ezkutatuak elkarteak *Testigantzak: genozidio ezkutu baten islak* liburua aurkeztu zuen. Urtebete baino gehiago pasatu da obra amaitu zutenetik, baina pandemiaren eraginez, ezin izan zuten urri erdialdera arte ekitaldia gauzatu. 88 Lekukotza horiek eman dituztenetako hainbat lagun bildu ziren Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioan.

Islada Ezkutatuak taldeko kide Joxea Muguruzak gogoratu bezala, 1936tik 1948ra bitartean Lasarte-Orian zer gertatu zen galderari erantzuteko lehen ahaleginen ezer gertatu ez zela zirudien, baina egindako lanak erakusten du egia oso bestelakoa dela. Lehen hitzartzeen ondoren, Joseba Tapia herritarra irten zen agertokira. Gerrak kultur mugimendu handia eragin zuela azaldu zuen, kontra egin eta gudarosteei indarra emateko kantak egin zirela. Himno horietako bi jo eta abestu ditu: *Gudara noa, aio maitea* eta Pepe Bolumbururen *Gure gerrako ibilerak*. Jarraian, obraren prestaketan beraiekin egon diren eta instituzionalki lagundu dieten alkateei eta kabinete buruei eskertza egin zieten. Amaitzeko, Zero Sette eta Euskadiko Orkestrako bina kidek Guridiren pieza bat eta eurek osatutako beste bat jo zituzten. Opari txiki bat banatu zieten bukatzean eta talde argazki batekin itxi zuten ordu eta erdi iraun zuen ekitaldia.



TXINTXARRI

Urrezko ezteiak ospatu zituzten

Biyak Bat adinekoen egoitzak gogotik ospatu zituen zenbait bazkideren urrezko ezteiak. Kalejira egin zuten erdigunean zehar goizean, mezara joan ziren gero Ama Brigitarren komentura, eta bapo bazkaldu zuten Kale Nagusian daukaten egoitzan. Oroigarriak jaso zituzten udal ordezkarien eskutik.

Auto klasikoak Lasarte-Orian

San Sebastian Circuit Spirit elkarteak antolatutako auto klasikoaren eta kirol autoen IV. nazioarteko rallyak geldialdia egin zuen Lasarte-Orian. Donostiatik etorritako ibilgailuek erregularitasun proba egin zuten herrian, Oria auzoan zehazki. 84 automobilek parte hartu zuten ekitaldian.



TXINTXARRI



TXINTXARRI

Festa giroak hartu zituen kaleak

Urriaren 23ko lehen ordutik iluntzera arte luzatu zen Ttakun Kultur Elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak antolatutako Euskal Jaiak-en egitaraua. Betiko moduan erabat egiterik izan ez bazen ere, partaideek ohi bezala onena eman zuten.

Txistularien dianak piztu zuen jai. Sagardotegi plazatik abiatuta Zumabururantz jo zuten, doinu alaiekin jakinaraziz baserriar jantzi eta festarekin bat egiteko garaia zela. Herria esnatzeaz gain, kantu eta dantza jiran parte hartu zuten: Ttiriki Ttarraka musika eskolako gazteak buru, bidea egin zuten, zenbait tokitan gelditu eta emanalditxoak eginda. Xumelako zein Plaza Dantzako kideak aritu ziren kantuan eta dantzan. Ibilbidea Okendo plazan amaitu zuten. Bertako azokako postuetan ez zen jenderik falta izan, ohi baino erakusmahai gutxiago izan ziren arren.

Goizeko ekitaldiak amaituta, eta arratsaldekoetarako prestatzeko, bazkaria egin zuten Ttakunenean. Paella eta postre goxoa jan zituzten 70 bat lagunek. Kafarekin batera, bazkaloste musikatua egin zuten, eta Okendora itzuli ziren gero, erromerian gogotik dantza egitera.

Kalabaza ikusgarriak

Telleri baserriko Pedro Arteagak sekulako kalabazak eraman zituen Andatza plazara, eta urriaren 20ko azokan saldu zituen. TXINTXARRI-ri kontatu zionez, argazkian ikusten diren pieza horietako bakoitzak 22,5 kilo inguru pisatu zituen. Arteagak duela 23 urtetik saltzen ditu bere ortuko produktu onenak merkatuan.



TXINTXARRI

Nahia Zudaire: "Eskerrik asko prozesuaren parte izan direnei"

Tokioko Paralinpiar Jokoetan egindakoagatik aitortza beroa jaso zuen Buruntzaldea IKT taldeko igerilariak

Txintxarri

Omenaldia egin zion Lasarte-Oriako Udalak eta herriak Nahia Zudaire Borrezo igerilariari. Tokioko Paralinpiar Jokoetan egindako lanaren aintzatespena jaso zuen. Abuztu hasieran Maialen Chourraut omentzeko erabilitako gidoi bera jarraitu zuen udalak: ekitaldi instituzionala eta herrikideen agurra.

Kalean hasi eta kalean amaitu zen ekitaldia. Arratsaldeko seiak baino lehentxeago, igeriketa taldeko zenbait kide eta lagunak alboan zituela iritsi zen Nahia Zudaire udaletxe aurrera. Errepide erdira atera ziren Agustin Valdivia alkatea eta Zudaire. Aurrean, lau dantzari, atzean, eta inguruan, aitortza egitera bertaratutako senideak, lagunak, taldekideak eta herrikideak.

Agurra dantzatu zioten eta urduritasuna iger zitekeen musukoak agerian uzten zuen Zudaireren aurpegian. Oina



Nahia Zudaire Borrezo. TXINTXARRI

mugitu zuen doinuarekin batera eta adi jarraitu zituen dantzariak. Jarraian, udalbatza aretora bidea egin zuen dantzariak atarian osatutako arkuak zeharkatuta eta *Ikusi mendizaleak* kantaren doinuak lagunduta.

"Harro gatoz osoko bilkura aretora kirolari gazte bat

hartzeko, Tokioko azken joko paralinpikoetan nabarmendu dena. Kirolari bat oztopo asko gaindituta kirol paralinpikoaren hitzordurik garrantzitsuena iritsi dena. Lortutako emaitza oso harro sentitzen gara denok", adierazi zuen alkateak.

Lore sorta eman eta zapia jarri zion alkateak omenduari. Hunkituta zegoen igerilari eta esker hitz batzuk besterik ez zituen esan. Batetik, udalari, bai berari Chourrauti omenaldi bera egin izanagatik; bestetik, prozesuaren parte izan diren guztiei, bidean alboan izan ditueni.

Kirola, "askatasuna"

Udaletxetik, Okendora. Aurkezlearen lehen galdera, hauxe: kirola berarentzat zer den. Erantzuna argi zuen Zudairek. Bere bizitzako alderdi asko lotzen baditu ere, hitz bakarrean azaltzeko gai izan zen: "Askatasuna. Nire elbarritasunak askoz gutxiago eragiten dit uretan, eta nire bigarren etxea da, gustura sentitzen naizen tokia".

Txalo zaparrada batekin agurtu zuten herritarrek igerilaria eta argazki ugari egin zituen balkoian zeuden kideekin.

Eguraldiak ez zituen kikildu

Eguraldi kaskarra protagonista izan bazen ere, 523 partaidek egin zuten X. Lurauto BTT probako hiru ibilbidetakoren bat, Andatza mendian topatu zuten lokatzari aurre eginez. Antolatzaileek aurreratu dutenez, 2022ko apirilaren 10ean egingo dute XI. aldia, pandemiaren bilakaerak hori ahalbidetuz gero, behintzat.



TXINTXARRI



INTZA ELKARTEA

2022 zoriontsua
opa dizuegu!

Sagardotegi kalea, LASARTE-ORIA - Tel: 943-36 15 34





TXINTXARRI



TXINTXARRI



TXINTXARRI

Gogotik ospatu ditu Ttakun KEk 30 urteak

Ttakun Kultur Elkartek 30 urte bete zituen azaroaren 16an: hiru hamarkadako lana, Lasarte-Orian euskara eta euskal kultura normalitzatzeko helburuz. Data berezi horren bueltan, makina bat ekitaldi antolatu zituen euskara elkarteak, eskerrak emateko batetik, eta herritarrekin batera urtemuga ospatzeko, bestetik. Festa giroan elkartu ostean, beti bezala lanean jarraitzen du Ttakunek, xedea noizbait betetzeko bidea egiten.

Aurkezpena, festa giroan

Lasarte-Oriako Zezensuzkoen eta Erraldioen Taldeak (LOZET) festa ederra antolatu zuen bere burua lasarteoriatarrei aurkezteko: herrian barrena kalejira egin zuen erraldoiekin eta buruhandiek, musikariek lagunduta; tailerrak egin zituen haurrentzat; eta zezensuzkoak atera zituen iluntzean, herritarrek haien aurrean lasterka egin zezaten.



TXINTXARRI

Kaleak hartu, eta indarkeria matxista arbuia zuten

Buruntzaldeako neska* gazteek manifestazioa egin zuten, eta kontzentrazioa Lasarte-Oriako Udalak

Txintxarri

Indarkeria Matxistaren Aurkako Egunean jazarpen fisiko eta psikologiko mota horren aurkako aldarriak ozen entzun zituzten lasarteoriatarrek. Buruntzaldeako neska* gazteek eskualde mailako manifestazioa egin zuten Okendo plazatik abiatuta. *Erasoen aurrean autodefentsa feminista!* lelotzat hartuta, erdigunea zeharkatu zuten. Egun horretan bertan, eguerdian, kontzentrazioa egin



Eskualde mailako manifestazioa. TXINTXARRI

zuen Lasarte-Oriako Udalak, Okendoko arkupeetan.

Santa Zezilia ospatzen

Udal Musika Eskolak, Alboka Abesbatzak, Gautxori txarangak eta txistulariek Santa Zezilia ospatu zuten azaroaren 22aren bueltan, musikarien zaindariaren egunaren bueltan. Herriko gune ugartan kontzertutxoak eman zituzten aipatu talde horietako kideek, lasarteoriatarren gozamenerako.



TXINTXARRI

Akordeoiak, berriz ere

Urtebeteko etenaldi behartuaren ostean (koronabirusagatik), Zero Sette Akordeoi Orkestrak jaialdia egin zuen kultur etxean. Banduoneando bikotea (Salva Parada eta Fernando Salinas) eta Pietro Roffi italiarra gonbidatu zituen ekitaldiaren XVIII. aldira. Amaieran saritu egin zituen.



TXINTXARRI

Hiru abesti, lehiaketara

Euskadi Irratiaren maketa lehiaketan parte hartu zuen Maialen Aristegi Letamendia lasarteoriatarrek; "aspalditik" zuen horretarako gogo. Hiru abesti aurkeztu zituen: *Maitasunak maitemina dakarren arren*, *Udazkena Gasteizen* eta *Bi Ahotsetara*. Azken horrekin final handira sailkatu zen.



TXINTXARRI



TXINTXARRI

Erabakitze nahia ureztatzen

Erreferendumaren aldeko makina bat sinadura bildu zituen Lasarte-Oriako Hamaika Gara taldeak azaroaren 21ean, kultur etxean. Horrez gain, Ekitaldi kulturala egin zuten, orain arteko bidea errepasatu, eta etorkizuneko erronkak identifikatzeko asmoz. Motorrak berotze aldera, Gure Esku dinamikako kide Mario Zubiaga gonbidatu zuen herrira, erabakitze eskubideaz hitz egin zezan.



Arrosa zuriak. TXINTXARRI

Arrosa zuri bana eskaini zieten biktimei

Memoriaren Egunearekin bat eginik, Lasarte-Oriako Udaleko alderdi politiko guztietako ordezkariak zein Lasarte-Oriako Bizikidetza Forokoek lore eskaintza egin zieten biktimei. Hainbat herritarrek ere bat egin zuten hitzorduarekin. Agustin Valdivia alkateak adierazpen bateratu bat irakurri zuen, eta bizikidetzaren aldeko Akordio Etikoa, berriz, foroko ordezkari Mari Karmen Ormazabal eta Begoña Urrozek.



Azaroaren 30ean egin zuten itxiera ekitaldia bizikidetza foroko lagunek. TXINTXARRI

Ezagutu, hausnartu eta jarduteko ariketa kolektiboa

Lasarte-Oriako Bizikidetza Foroak 'Bizikidetzarako memoria' erakusketa osatu, eta herritarren eskura jarri zuen

Txintxarri

Elkarbizitzaz hausnartzea eta aritzea proposatu zuten Lasarte-Oriako Bizikidetza Foroak herritarrei, azaro osoan zehar. Horretarako, *Bizikidetzarako memoria* erakusketa atondu eta ireki zuen, Antonio Mercero gunean. Horrez gain, astelehenetan proiektzio eta solasaldiak egin

zuten azken urteetan elkarrizketatu dituen 23 pertsonekin.

Hilabeteko azken egunean itxiera ekitaldi xume bat egin zuten, eta bizilagunen erantzunarekin "oso pozik" zegoela nabarmendu. 500 lagun baino gehiago bertaratu ziren Mercero gunera, erakusketa ikustera.



ALEX SALETA

Alex Saleta, txapeldun

Ezohikoa izaten ari da 2021ean Tokion (Japonia) jokatu diren Joko Olinpikoetarako prestaketa palista lasarteoriatarrentzat: lehiaketa gutxitan parte hartzeko aukera izan du hilabete hauetan. Azaroan Munduko Kopako proba jokatu zuen Paun (Frantzia), eta bosgarren denbora onena egin zuen, 120.30 segundoko denbora eginda.

Buruntzazpi eskolak, agur

2008. urteko abenduan sortu zen Buruntzazpi Txirrindularitza Eskola, Usurbilgo eta Lasarte-Oriako neska-mutilei txirrindularitza ibiltzeko aukera emateko asmoz. Hamahiru urte beranduago itxiko ditu ateak, urtea amaitzearekin batera. Hala iragarri zuen azaroan arduradun Xabier Carbayedak.



BURUNTZAZPI ESKOLA

'Patxikito'-ri omenaldia

Ostadar SKTko futbol saileko zuzendaritza kideetako bat izandako Patxi Castro zena gogoratu zuten Michelin kirolgunean. Kirol taldearen eta Lasarte-Oriaren alde egindako lan guztia eskertu zioten 2020ko urrian zendu zen herritarri. Lasarteoriatar ugari bertaratu ziren aintzatespen ekitaldi xumera.



TXINTXARRI

txintxarri

Lasarte-Oriako etxe eta komertzioetan,
doan eta euskaraz

“KRISI GARAIAN, PUBLIZITATEA
DA INBERTSIORIK ONENA”

HORREGATIK... **DESKONTU BEREZIAK** DITUGU
HERRIKO KOMERTZIO, ENPRESA ETA OSTALARIENTZAT

ESKATU TARIFAK: publizitatea@ttakun.eus • 646 82 44 66

Seigarren olatuak Lasarte-Oria ere busti du

Abenduaren 1etik 26ra arte, gure herrian 545 kutsatze erregistratu dituzte Osakidetza eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak. Izan ditu ondorioak horrek: esaterako, Eguberrietan egitekoak ziren zenbait jarduera moldatu edo bertan behera utzi dituzte antolatzaileek

Txintxarri

Koronabirusaren beste olatu baten maila gorenean amaituko dugu urtea. Abenduaren 1etik 26ra arte, 545 kutsatze atzeman dituzte Osakidetza eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak Lasarte-Orian, iazko azaroko ia bikoitza (orduan, 275 izan ziren). Datu ofizialen arabera, 2020ko martxoan pandemia lehertu zenetik 2.878 lasarteoriatar kutsatu ditu SARS-CoV-2 birusak, herrian bizi diren ehun biztanletatik hamabost pasatxo (%15,1).

Birusaren enegarren oldarraldiak izan ditu ondorioak. Lasarte-Oriako Udalak, esaterako, Eguberrietarako programatuta zituen zenbait jarduera moldatzea edo bertan behera uztea erabaki zuen, eragileekin elkarlanean. Hala, Mari Domingi eta Olentzero herrira etorri badira ere, ez dira kalejiran atera, eta Errege Magoek ere ez dute egingo. Zenbait kirol elkartek bertan behera utzi dituzte Gabonetan egin ohi dituzten txapelketak, eta etxeko txikienek ezin izan dute Eguberrietako Haur Parkeaz gozatu, iaz bezala.

Hori gutxi balitz, Eusko Jaurlaritzak neurri murriztaile berriak adostu ditu beste zenbait erkidegorekin, Nafarroarekin kasu. Aldizkari hau inprentara bidaltzerakoan LABI batzordea



Osasun langileek eta sindikatuek protesta egin zuten hilaren 22an. EH BILDU L-0

mugak adosteko bilera egiten ari zen. Mahai gainean, besteak beste, ordutegiak eta edukierak murriztea zeukaten, ostalaritza establezimenduetan batez ere.

Osasun langileen protesta

ELA, LAB, CCOO, UGT eta Satse sindikatuek deituta, Euskal Autonomia Erkidegoko osasun zentro askotan elkarretaratzeak egin zituzten abenduaren 22an, baita Lasarte-Oriakoan ere. Osakidetza lehene mailako arreta zerbitzuaren egoera salatu zuten, eta osasun publikoa indartzera bideratutako politika publikoak eskatu. Protesta ekintza horiekin bat egin zuen EH Bildu alderdi politikoak. Haren aburuz, "kolapso

egoeran" dago Osakidetza lehene arretaren zerbitzua. "Ez da kasualitatea: pandemiaren kudeaketa okerraren ondorio da, eta osasun publikoa indartzera bideratuta ez dauden politika publikoen emaitza".

Koalizio subiranistaren irudiko, erkidegoko anbulategiak eta bertako langileak "erabat gainezka" daude, eta ez dira pazienteak "behar bezala artatzeko gai". "Alor horretako profesionalek urteak daramatzate egoera salatzen, eta herritarrek hori pairatzen, baina muga guztiak gaintu dira pandemiarekin: gaur-gaurkoz osasun zentroetan ikusten diren egoerak imajinaezinak ziren duela urte batzuk".



TXINTXARRI

Hausnarketa kritiko bat

2016. urteko sanferminetan gertatutako talde bortxaketatik abiatuta, *Nik sinesten dizut* saiakera liburua idatzi du Samara Velte kazetari eta EHUko doktoregaiak. Manuel Lekuona kultur etxean aurkeztu zuen lana, eta Maider Galardi kazetari eta doktoregai lasarteoriatarra izan zuen ondoan. Bera arduratu zen saioa gidatzeaz.



TXINTXARRI

Felixa Tapia zoriondu dute

Biyak Bat egoitzako zuzendaritzako kideek Felixa Tapia bisitatu dute berriki. Herritarrek 100 urte bete ditu aurtan, eta zoriontzera bertaratu dira. "Batzordeko kideak oso pozik gaude Felixa osasuntsu dagoelako; urte askoz gehiago egin ditzala opa diogu", adierazi dute.

Bidegorri sarea handitzen

Urbil Merkatalgunea eta Txikierrdi batzen dituen bidegorria inauguratu zuten abendu hasieran. Mugikortasun eta Lurralde Antolaketako diputatu Rafaela Romero, Usurbilgo alkate Agurtzane Solabarrieta eta Agustin Valdivia Lasarte-Oriako alkatea izan ziren bertan. Zati berri hori kilometro inguru da luze; inbertsioa 386.785,17 eurokoa izan da.



TXINTXARRI

Jarduera eten du herriko pentsionisten koordinakundeak

Hiru urteko lanaren ostean, Lasarte-Oriako Pentsionisten Koordinakundeak bere jarduera etetea erabaki zuen, "arrazoi pertsonalak" argudiatuz. Protesta eta aldarrikapen ekintzetarako erabiltzen zuten soinu ekipoa Alboka Abesbatzari eman zioten, eta kutzako dirua, 423 euro, Gipuzkoako Elikagaien Bankuari.



Pentsiodunak, protestan. TXINTXARRI



TXINTXARRI

Familia eta lagunekin, 30 urte

Jalgune elkarteak 30 urte bete ditu aurten, eta hiru hamarkada ez direnez egunero urratzen, gogoz ospatu dute urtemuga. Manuel Lekuona Kultur Etxean jaialdia egin zuten horretarako, eta beste jarduera batzuk ere bai: familia eta lagunek egindako urtebetetze bideoa proiektatu, bideoklip bat grabatuko dutela iragarri eta zozketak prestatu, herriko zenbait eragilerek.



Jon Susin lasarteoriatarra. TXINTXARRI

'Nubes de caucho' fanzinea abian jarri du gazte talde batek

Lasarte-Oriako gazte talde batek *Nubes de caucho* fanzinea abian jarri du. Antolaketa politikorako tresnaz gain, gogo artistiko bat asetzeko bidea ere bada argitalpena. Lehen zenbakia urrian kaleratu zuten eta Oreka tabernan erosi daiteke. Sortzaileetako batek, Jon Susin lasarteoriatar gazteak eman zizkion TXINTXARRI-ri argitalpenaren xehetasunen berri. 150 aleko tirada egin dute eta, ondo bidean, lau hilabete behin ateratu nahiko litzekete zenbakiak.



Otsoa liburua idatzi du Laura Hueso Alviz herritarra. TXINTXARRI

Semeari jasan duena azaltzeko, 'Otsoa' idatzi du Laura Huesok

Julen semeari hiru urte zituela diagnostikatu zioten leuzemia, eta bizitakoa azaltzeko ipuina sortu du lasarteoriatarrek

Iñigo Gonzalez Sarobe

Juleni, pairatu (eta gaintu) duen gaixotasuna kontatu nahi zion bere ama Laura Hueso Alviz-ek (Lasarte-Oria, 1979), eta pentsatu zuen, aukerarik onena ipuin baten bitartez egitea izan zitekeela. Leuzemia diagnostikatu zioten semeari hiru urte zituela, eta, orain, noizbehinkako kontrolak

egiteko baino ez du joan behar ospitalera. Bi urte eta erdiko borroka "luzea" izan da, ordea. Egonaldi luzeak egin behar izan dituzte ospitalean, eta bizipen haieetatik abiatuta hezurmamitu du *Otsoa* izeneko liburua; semeari une hartan gertatzen ari zitzaiona "modu erraz batean" azaltzeko helburuarekin idatzi du.



TXINTXARRI

Eguberrietan, kontzertua

Alboka Abesbatzako kideek Gabonetako emanaldia egin zuten San Pedro elizan. Herritar ugari bertaratu ziren ikuskizunaz gozatzera: zazpi kanta eta bis bat abestu zituzten Albokakoek. Kontzertua bukatu aurretik, sorpresa ederra jaso zuen zuzendari Montse Latorrek. Kideek omenaldi xumea egin zioten, 25 urte baitaramatza Albokan.

Jantzi ederrak josi dituzte

Urtero gisa, Eguberrietan jantzi dotoreak luzitu dituzte herritarrek, zenbait ikaslek jantzi tradizionalen ikastaroan egindakoak. Ttakun Kultur Elkarteak eta Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuak antolatzen dute, elkarlanean. Ione Artola jostuna izan da irakaslea aurten ere: "Oso txukun eta ongi aritu dira guztiak".



TXINTXARRI

Topaketa, giro ederrean

Eskola Kirola egitasmoak lagunak topaketa egin zuten Michelin kirol gunean, Ttakun Kultur Elkartearen 30 urteak ospatzeko. Espero baino haur gutxiago bertaratu ziren koronabirusa tarteko, baina goiz ederra igaro zuten, eta Maialen Chourraut eta Axier Arteaga kirolari profesionalak ezagutu.



TXINTXARRI



TXINTXARRI

Aurten ere, lehiaketarik ez

Herriko zenbait kirol elkarte itxaropentsu bazeuden ere, azken asteetan koronabirusak izan duen bilakaerak lehengo urteko egoera ekarri du atzera ere: txapelketarik eta ekitaldirik ez antolatzea erabaki dute Eguzki Areto Futbola, Ostadar Saskibaloia eta San Silvestre Lasarte-Oriak. Datorren urtean ekitaldi horiek egin ahal izatea espero dute hiruek.

Urteko onenak saritu dituzte

Kirol Gala ospatu zuen Lasarte-Oriako Udalak Manuel Lekuona kultur etxean. Aitorza aurten jaso duten lau kirolariekin batera, aurreko sei urteetan ere sarituak izan direnak ere elkartu ziren aretoan. Oroigarria Naroa Furundarena atletak, Alex Saleta errugbi jokalaria, Carlos Rodriguez arrantzaleak eta Fran Puertas errugbi jokalaria ohiaik eraman zuten etxera.



TXINTXARRI

Mari Domingi, Olentzero eta lagunek ez dute hutsik egin

Kalejirarik egin izan ez bazuten ere, herritarren harrera beroa jaso zuten Lasarte-Oriako hainbat gunetan

Txintxarri

Lasarte-Oriako haur eta gaztetxoek Olentzero eta Mari Domingiren bisita jaso zuten abenduaren 24an. Nahiz eta ikazkinak eta ohiko kabalgata ezin izan zen antolatu, etxeko txikiak ez ziren pertsonaia maitagarri horiek ikusi eta euren maitasuna jaso gabe geratu. Lau gunetan guztien ilusioa nabari zen atetik igaro baino lehen. Guneetan sartu eta Olentzero zein Mari Domingirekin bildu

ahal izan ziren eurekin hitz egin eta eskutitzak emateko. Urduri zeuden asko eta gutxi batzuk abestera ere animatu ziren.

Horren ostean, kultur etxera jaitsi ziren bi protagonistak, eta Xixuko, Maritxuteilatuko eta Porrotxekin batera, ikuskizun koloretsua oparitu zieten lasarteriatarrei. Atsedean hartzera joan ziren gero, oso lanpetuta ibili baitziren gauean eta hurrengo eguneko goizaldean, etxez etxe opariak banatzen.



Abenduaren 24a egun magikoa izan zen etxeko txikientzat. TXINTXARRI

Oriarteko ikasleen bisita

Oriarte institutuko DBH 2. mailako ikasle talde bat TXINTXARRI eta bere erredakzioa ezagutzera etorri zen, dagoeneko martxan jarri duten aldizkarirako ideiak hartzeko.

Erronkatxo bat jarri genien, eta ederki bete zuten: haiek idatzi zuten bisitaren kronika, eta abenduaren 17ko zenbaki berezian argitaratu genuen, ikasleetako bat den Any-ren komiki zinta ederrarekin batera!



TXINTXARRI



Zorionak eta urte berri on!

Benetan gertu
Benetako arreta
Benetan profesionala

Horrelakoak dira Lasarte-Oriako Merkataritza, Ostalaritza eta Zerbitzuak.

benetako bizitza



Maitete



E TELU

Ondo pasa Gabonetan eta urte berri on!



- B Gestoria**
- B Aholkularitza**
- B Inmobiliaria zerbitzuak**
- B Aseguruak**
- B Etxebizitzen administrazioa**



Aralar plaza, 4 behea Lasarte-Oria • Tel.: 943-36 48 86 • www.mbetelu.com

txintxarri

TXINTXARRI-ko lantaldeak 2022 zorientzua opa dizue

*Hurrengo Txintxarri paperean
urtarrilaren 14an argitaratuko dugu*

Bitartean, jarraitu herriko albisteak sarean: www.txintxarri.eus



Ttakun
30 urte

EGIN ZAITEZ BAZKIDE!

54€ urtean



Euskara eta kultura bidelagun!

zuk
54€
urtean
ordaindu

guk
Euskara eta
kultura
sustatuko
dugu

Errenta
aitorpenean
%20ko
kenkaria
izango duzu

**URTARRILAREN 10a baino
lehen bazkide egiten
bazara otar baten
zozketan sartuko zara!**



Datuak bete eta utzi Ttakuneko bulegoko postontzian
On-line egiteko: www.txintxarri.eus/bazkidetu

Izen-abizenak: _____

NAN: _____ Jaiotze data: _____


Helbidea: _____ Herria: _____

Telefonoak: _____

e-maila: _____

Kontu korrontea (IBAN): _____

Data eta Sinadura



Ttakun Kultur Elkartek urtean zehar antolatzen dituen ekitaldien eta zozketen berri jaso nahi dut emailez

Bidali postaz edo utzi bulegoan:
Geltoki kalea, 4 behea 20160 LASARTE-ORIA

On-line egiteko:
www.txintxarri.eus/bazkidetu

Ttakun kultur elkartearen izenean emandako datuak bazkideen kudeaketarako erabiliko direla adierazten dizugu; kudeaketa administratiboa, bazkideen onuren aplikazioa, zozketen partehartzea eta harremanetarako informazioa. Emandako datuak bazkideezak irauten duen bitartean edota betebeharr legalak irauten duen bitartean gordeko dira. Datu hauek ez dira hirugarren pertsonen eskainiko betebeharr legala dagoen kasuetan ezik. Honetaz gain, edozein momentutan egikaritu daiteke sarbide, zuzenketa, ezeztatze, oposizio, mugatze eta eramangarritasun eskubidea, TTAKUN KULTUR ELKARTERA idatzi bat zuzenduz NAN agiriara aurkeztuz, edo posta elektronikoki bat bidaliz datubabesa@ttakun.eus helbidera.

Informazioa eta bazkidetzak: ttakun@ttakun.eus • Geltoki kalea, 4 Lasarte-Oria • 943-37 14 48